



uk

105. zenbakia / 2006 irailak 17



UK galeria > Antonio Herranz



Orain dela ia 40 urte hasi zen argazkigintzan Antonio Herranz. Hastapenetan (1971-1980 urteen artean) prentsa eta publizitatea jorratu zituen. Ondoren, 1984an, Algortan Taller de Imagen bideo eta argazkilaritza eskola gogoangarria sortu zuen. Eskualdeko makina bat lagunek ikasi zuen han. Orain dela lau bat urte eta garaiotara egokirik, irudi bankoa sortu zuen interneten: www.tdi-images.com. Berak diseinatzeko eta zuzentzeko duen gune honetan milaka argazki daude salgai. Bilboko Erakusketa Azokako (gaur egun, BEC) argazkilaria ofiziala izan da 1982az geroztik. Baina fotografiaz gain bideogintza -bere zentzurik zabalenean- ere jorratu izan du Antoniok. Esaterako fotografiaren historia eta estetikari buruzko *La puerta abierta* dokumental sorta arrakastatsua sortu zuen. Getxo eta Ibizari buruzko bideo turistikoak egin izan ditu edota Oskorri, Itoiz eta beste hainbat taldeentzako bideoklipak.



«Non fida, han gal» Euskal esaera zaharra

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Asier Mentxaka.
- LEHEN ETA ORAIN. Leioako Mendibile baserria.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Irkus Ansotegi.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Plentziako sanantolinak, A. M.
- ARGAZKIA. Paseoa, Willy Uribe.
- BERBETAN. Juan Lopez de Uralde, Unai Brea.
- FOTOGRAFIA. Getxo Folk 2006, A. M.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Nomadak TX filma.
- MUSIKA. Baga-biga disketxea. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Nagib Mahfuz euskaraz. Liburuaren erreseinak.
- KIROLAK. Jon Elortegi, Castroko arraunlari barikarra.

EUSKARAZ

- ELKARRIZKETA. Jorge Jauregi dantzari plentziarra.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardazaren gaineko lezioa. Non erosi? Adibidez, Sopelako La crossanterien.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Etorkizuna taldea, 1976.
- AITORMENAK. Adela Gonzalez.



30 Juan Lopez de Uralde

Berbetan

Greenpeaceko zuzendari exekutiboa da Juan Lopez de Uralde donostiarra. Klimaz, gaur egungo bizimoduaz eta gure arazo ekologiez berba egin dugu.



45 Jon Elortegi



14 Aberasturi



11 Irkus Ansotegi



24 Getxo Folk 2006



54 Adela Gonzalez

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egunola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruaa, Amaia Arriaga, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zurine Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Gure oporrak

Merezitako oporralditik bueltan erredakzioan sartu eta makina bat e-mail, prentsa-ohar eta deialdi pilaturik aurkitu dugu aldizkari honetako beharginok, bakoitzak bere konputadorean. Horri guztiari aurre egiten, *bizitza erreala* esaten zaionari atzera eusten, kostata baina, ibili gara azken egunotan. Lanari berriro ekiteko nagi sendaezinarren eranginpean gure udako nondik norakoak, luze, luzeegi agian, kontatu dizkiogu elkarri. Eta horrek ere akaso zenbaki honen argitaratze dataren atzerapenean eraginik izango zuen.

Bada, UKgileetako bat Mexiko aldean brigadista moduan ibili da abuztuan; Txiapas, DF... hango errealtate aberatsaren berri ekarri digu. Gutako beste bat, eskalatzen, Kortsikako mendi gailur ederrak zapaltzeko ahaleginetan ibili da. Hirugarrena, Ipar Irlandara bere ingelesa hobetzeko asmoz joan zela kontatu du, bere sabel puztu berriak bestelako zereginetan ere ibilia dela salatzen duen arren. Betiko legez, eta ezinbestean, bere bihotzeko Mundakan igaro du uda UKko laugarrenak. Mediterraneoko bazter epelak hobetsi ditu berriz gutako bosgarrenak. Eta gure talde titularra osatzen duen seigarrena, Lisboan galdu da, berez sendaezina daukan malenkolia are gehiago elikatu nahian edo.

Hauexek dituzue lan talde honetako kideon 2006ko abuztuko iheslekuak. Zuoi bost, badakigu. Baina ez zaigu besterik bururatu *Gu geu* honetarako. 4

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua




leihatila > Maddi Albizu

Errutinara buelta

Oporren azken egunetako hitzik errepikatuenetako bat da errutina. Hitz hau frantsesezko *routine* berbatik dator, hau da, ibilbidea (route). Gauzak egiteko hartutako ohitura arrazoitu gabea-edo dela esan genezake. Ez dugu gustukoa errutina, nahiz eta, adituek diotenez, errutina apur bat behar-beharrezkoa dugun. Segurtasuna ematen digu, nonbait. Dena dela, argi dago bizimodu guztiz errutinarioa erabat itogarria izango litzatekeela. Horrexegatik askok eta askok errutinak aldatzeko gonbita egiten dute lau haizetara. Ez dezagun, ordea, geure burua engaina. Errutina aldatzea ez da hortzak garbitzeko orduan goiko hortzetatik hasi beharrean behekoetatik hastea, edo lanera ez-ohiko bidetik joatea. Hortzak garbitzea errutina osasuntsua den era beretsuan lanera joatea errutina beharrezkoa dugu. Benetako aldaketa ez dago egiten ditugun gauzak egiteko moduan, gure jarreran baizik. Geure buruari erronka berri eta zirraragarriak jarri edo esperientzia berriak bizitzeko grina landu behar dugu errutina eramangarriagoa izatea nahi badugu. Ongietorri, irakurle, errutinara. 4

[irudia]



ERANDIO, 2006KO IRAILAREN 8A

Azkena / Ontziola publiko legez La Navalek egin duen azkenengo uretaratzea izan da Sestao Knusen itsasontziarena. Ontziola esku pribatuetan utzi du PSOEko Espainiako Gobernuak, CCOO eta UGT sindikatuen laguntzaz aurren. Ondorioz, besteak beste, gehienez 340 langilegaz lotuko da La Naval. Halaber, askori berpiztu zaie oroinenean Euskaldunaren auzia, ontziola bizkaitarren historia sutsua eta amaiera tamalgarria; ordutik 18 urte pasa direnean, berriro 90 urteko Sestaoko ontziolaren etorkizunean ere hodei beltzak ingarri dituzte askok... / Agazkia: **Asier Mentxaka**



ARGAZKIA: JUAN GÓMEZ

Alfredo Aldai / Jon Bernardez / Aitor Galbarriartu / Juan Gómez / Juan Luis Markaida
Satistegi kafea / iraila-urria 2006
Javier Martínez Llona / Mikel Martínez / Oskar Martínez / Asier Mentxaka

URIBEKOSTAKO ARDIZKILARIEN KOLEKTIBOA



KULTUR LEIOA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / LEIOAKO MENDIBILE BASERRIA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > bizkaiko zubiari



Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1
Mila ta zortzi ehuna
amaitzen hasirik,
laurogeita hamahiruko
uztaila joan barik,
bizkaitarrek Markoxi
inbidia izanik
ez zuten egin gura
lastozko zubirik,
bizkaitarrek Markoxi
inbidia izanik
zubi bat utzi zuten
Nerbioian zintzilik.

2
Bere garaian izan
zen prototipoa
nahiz orain dirudien
beti-betikoa,
Bizkaian beti izan da
zubi mitikoa
Ibaizabal gaineko
zabu publikoa,
Bizkaian beti izan da
zubi mitikoa
bi *Tour Eiffel* dituen
teleferikoa.

3
San Raketara dantzan
joandakoak usu
edo Costa Ricara,
shopping-era itsu...
gizartean zaila den
hori lortzen duzu
Portugalete eta
Areetaren musu,
gizartean zaila den
hori lortzen duzu,
ezkerra eta eskuina
elkartzen dituzu.

* Doinua: Kasik hamalau urte

Bizkaiko Zubia Gizateariaren Ondare
izendatu berri du UNESCOk.

fotografia > eskualdeko argazkilarien itsasoaren inguruko lanak



Ezkerrean; Zozoak Glean 2003, Asier Mentxaka.
Goian; Asturias 2005, Javier Martinez.
Azpian; Itsasontzia igarotzen, 1998, Alfredo Aldai.

Itsasoa modu zabalean gai bezala hartu eta talde erakusketa antolatu dute eskualdeko zortzi argazkilarik, guztiak lanbide honetan ibilbide luzea eginikoak. Honako hauek dira argazkilariok: Alfredo Aldai, Jon Bernardez, Aitor Galbarriartu, Juan Gomez, Juan Luis Markaida, Javier Martinez LLona, Mikel Martinez de Trespuentes, Oskar Martinez eta Asier Mentxaka. Erakusketa Algortako Satistegi kafean egingo da, aldi bitan: lehenengoa urrian zehar eta bigarrena azaroa aldera. Azkenik aipatu, egitasmo hau BBK eta UK aldizkari honen babesarekin egin dela. m

erakusketa > fotoretro getxo 2006



Algortako antzinako bizimoduaren isla dira argazkiok

Irailaren 27tik urriaren 1era, antzinako 200 bat argazki erakutsiko dituzte Algortako Geltokia plazan. Denetarik aurkituko dugu bertan, beti ere Algortari lotuta: jaiak, futbol taldeak, trenbide zaharra, 40-50 hamarkadetako ikasle taldeak eta beste hainbat bitxikeria (zezen plaza, hegazkin baten lur hartzea Ereaga hondartzan...). Horiez gain, udalerriaren eboluzioa islatzen duten argazkiak egongo dira ikusgai. XX. mendeko lehen erdiko irudiak dira gehienak, 60. eta 70. hamarkadetako batzuk jarriko badituzte ere. Joan den urtean Algortako bizilagunek liburutegian utzitako argazkiei esker abian jarritako ekimena da *Fotoretro 2006* eta gura duenak irudion kopiak eskuratzeko aukera izango duela aipatu dute Kultur Etxekoek. m

saiaz getaria

HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa


...haria

...lehenengo garaia...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

webcamak > gure intimitatea salduta ete dago?



Gorlizko hondartza ikusteko: <http://webcam.gorliz.net/>. Kamera gehiago: www.cybereuskadi.com/links/euskadi/webcam-vasca/.

info@euskalkultura.com > euskal diasporaren inguruko informazioa

2001ean inauguratu zuten euskal diasporaren inguruko berriak eta informazioa eskaintzen duen www.euskalkultura.com webgunea. Atzerriko euskal herritarrek gure kultura mantzentzeko egiten duten lanaren berri ematea da egitasmoaren helburua eta, horretarako, egunero buletin bat osatzen dute azken titularrakaz. Hura jaso gura duenak, info@euskalkultura.com helbidera idaztea besterik ez dauka eta beste herrialdeetako euskal elkarteei zein pertsonaiei buruzko gorabeherak irakurri ahal izango ditu. Euskal diasporagaz zerikusirik duen pertsona talde batek martxan jarri zuen ekimena 1998an; orduan, Argentinan, Txilen, AEBetan eta beste hainbat herrialdetan banatzen zen paperezko formatuan. Intereneten arraskata ikusita, euren lana era digitalean eskaintzea erabaki zuten proiektuaren egileek. ^m

Informazio gehiago: www.euskalkultura.com



HABE eta Udalek diruz lagunduta

euskara ikasi

aek ren eskutik



Urbe Kostako aek:

Algora Tel.: 944 304 734 • Leiza Tel.: 944 646 063 • Sopela Tel.: 946 764 876 • Plentzia/Gorliz Tel.: 946 773 607





Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz





Irkus Ansotegi > plaza gizona

Irkus Ansotegi algottarrak 27 urte dauzka eta oraintxe dabil Zuzenbide ikasketak amaitzen. Berandutxo-edo, berak aitortzen duenez, baina ez pentsa mutil hau geldirik egoten denik. Aitaren artekaritzan behar egiten du lan egunetan, eta asteburuetan panderoa astinduz ibiltzen da herririk herri, Xabi Aburuzaga trikitilariagaz batera. *“Hamalau urteaz hasi nintzen panderoa ikasten”*, gogoratu du Ansotegik. Bide batez soinuaren sekretuetan ere murgildu zen, baina ez da tresna hori hain ondo menperatzera ailegatu. Ikastarook Itxartu dantza taldeak eskaintzen zituen eta Ansotegi, eurakaz panderoa jotzen ez ezik, dantzatzen ere hasi zen. Hor dabil oraindino. Aukerarik politena, zelangura, bat-batean ailegatu zitzaion: *“Xabi Aburuzagak pandero jotzaile bat behar zuen trikitixa txapelketa batenako, eta han agertu nintzen ni”*. Orain dela hamabi urte sortu zen bikotea, eta ez da oraindik banatu. *“Xabik musika dauka ogibide eta benaz lan asko egiten dugu”*, diosku Irkusek. Lankidetzaz horri esker, besteak beste, Ander Deuna eta Betiko ikastolek antolatutako Ibilaldiko kantan jo zuen; beste batean Miamira joan zen, aldi berean pandero jotzaile, aurrekulari eta txalapartari -hori ere badaki- jardutera. Jeneralean, zer esanik ez, etxetik hurbilago ibiltzen da, eta ez da batere txarto ibiltzen egia esan: *“Trikitilari bizimodua ez da txarra. Gu nona, giroa hana; jendea beti egoten da alai gure inguruan, eta gainera Euskal Herriko leku batzuk ezagutzeko aukera eduki dut, bestela ezagutuko ez nituzkeenak”*, aldarrikatu du algortar gazteak. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

Hirugarren osasun zentroa

Alango eta Martikoena kaleen artean eraikiko duten anbulatorio berria **2008ko udarako**-edo egongo da martxan; **3,25 milioi euroko** aurrekontua dauka eta lanak azaro aldean hasiko ei dira

Osasun sailburu Gabriel Inclin eta Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak aurkeztu zuten uztail amaieran Algortako osasun zentro berriaren egitasmoa. Algortako ur biltegi ohiak dauden orubean altxatuko dute anbulatorio berria, Udalak beren-beregi Osakidetzari utzitako lursailean.

Hastapenetan, lehenengo asmoa Bidezabalgo anbulatorioa handitzea bazen ere, gerora anbulatorio berria eta bestelako kokagune batean eraikitzea erabaki zuten Getxoko Udaleko eta Osasun Saileko arduradunek. Hala, Bidezabalgo anbulatorioak arnasa har dezan, gaur egun 50.000 bat biztanleentzako zerbitzua eskaintzen du, Algortako goialdean lekutuko den osasun zentroak 20.000 lagunentzako zerbitzua emango du, gerora 25.000 herritarrentzako eskaintza emateko prestatuta egongo bada ere.

Alango eta Martikoena kaleen artean ur biltegi ohiia dagoen orubean kokatuko da Getxoko hirugarren osasun zentroa. 3.000 metro koadroko azalera hartuko du eraikinak eta 3 solairu edukiko ditu. Beheko solairuan biltegiak, aldagelak, instalazioen gelak eta aparleku gutxi batzuk egongo dira. Lehengo solairua bi zatitan banatuta egongo da: harrera gunea eta asistentzia gunea (Pediatriako 4 kontsulta, sendaketa eta odola ateratzeko gela, andrazkoentzako arreta-gunea, emagin eta erditze aurreko prestaketarako gimnasio zerbitzuagaz, eta Eskola Osasunerako bulegoa). Azkenik, goiko solairuan familia medikuntzako 12 kontsulta, lan osasuneko bulegoa, bilera gela etab. jarriko dituzte. Horiez guztiez gainera, Uribe Es-



Paraje honetan eraikiko dute osasun zentro berria

kualdeko Osakidetza zuzendaritzak ere bertatik jardungo du (Leioan dago oraindik), horren bitartez Uribe eskualdea osatzen duten 24 udalerrientzako oinarritzko osasun arreta bideratuko dute, gutxi gorabehera 210.000 bizilagunentzako zerbitzua.

«Etorkizunean Andra Mari-Getxon eraiki lezakete laugarren osasun zentro bat»

Arduradunek aurreratu dutenez, zentroak 8:00-20:00 bitarteko ordutegia izango du, eta bertan lan egingo dute Familia eta Komunitate Medikuntzako 9 espezialistek, 2 pediatrik eta 11 erizainek, besteak beste.

Zentro berriako aurrekontua 3.250.000 eurokoa da (250.000 euro ekipamenduak) eta eraikitze lanak azaro-abendua bueltan hasia espero dute arduradunek. Osterantzean, lanak

gauzatzeko epea 18-20 hilekoa da, eta dena ondo badoa, 2008ko uda partean zabalik egotea espero dutela iragarri dute.

Laugarren osasun zentro bat?

Andra Mari-Getxon egiteko asmoa duten etxebizitza eta urbanizazio plangintza dela eta, Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak aurreratu du gerta litekeela etorkizunean bertan eraikitzea Getxoko laugarren osasun zentroa izango litzatekeen eraikin berria ere. m

Datu batzuk

- **3.000 metro koadroko** azalera eta 3 solairu.
- **3,25 milioi** euroko aurrekontua
- **20.000** herritarrentzako zerbitzua eskainiko du
- **Emagin eta pediatria** zerbitzua emango du
- **Uribe** eskualdeko Osakidetza zuzendaritza bertara lekualdatuko dute.

Merkatutxiki azoka

Produktu **merkeak** salduko dituzte dendariak



Aparkalekuan ipiniko dute dendariak euren jeneroa salgai

Datorren irailaren 22an eta 23an aurreko denboraldietako produktuak prezio merkean saltzeko azoka antolatu dute Getxoko dendariak. Guztira, 45 dendak hartuko dute parte Merkatutxiki azokan, iaz baino bost gehiago, eta saltokia 9:30etik 20:30era egongo da irekita metro geltokiaren ondoko aparkalekuan.

Nahiko berria den ekimena da azokarena, iaz antolatu zuten-eta lehenbiziko aldiz, aurreko denboraldietan biltegian saldu barik geratu ziren produktuak bezeroei oso prezio onean eskaintzeko. Dendariak beraiek antolatzen dute guztia (kartelak, afixak, prentsaurrekoak...) eta Getxoko Udalak argindarraren instalazioagaz

laguntzen die.

Aurreko urtean, kalean jarri zuten merkaturia eta, eguraldia sano ona izan zenez, ekimena arrakastatsua izan zen oso; aurtten hala ere, erriak sor ditzakeen eragozpenak direla medio, karpa bat jartzea erabaki dute antolatzaileek, badaezpada ere.

Azoka egitasmo pribatua da, ez dauka herriko merkatarien elkarteagaz zerikusirik eta urtean behin egiten dute. Azken finean bezeroengandik gertu egotea da Merkatutxikiren helburu nagusia. Bertan denetarik aurki dezakegu: kirol arropak, barruko arropak, zapatak, moda, osagarriak... m

AISA IKASTAROAK BERRIRO MARTXAN

Aurreko urteko arrakasta ikusita, berriro ere eskainiko dituzte Aisa harrera-ikastaroak. Ikastarook etorkinentzako harrera-ikastaro linguistikoak dira, euskara ikasteko oinarri-oinarritzko ikastaroak; euskal gizartea, ohiturak etab. ezagutu eta euskara ikasteko lehenengo urratsak eman ditzaten. Astean 4 ordu dira, 2 egunetan banatuta. Izena emateko epea urriaren 6ra arte dago zabalik Udal Euskaltegian edota Lauaxeta Euskaltegian (matrikula 10 euro).

Harremanetarako: 94 464 62 99 /94 43 047 34

ZIRGARIEN GAINEKO LIBURUA IDATZI DUTE

“Zirgariak” IV. Herri Antzezenaren egunean, irailaren 10ean, aurkeztu zuen *Las sirgueras en la ria de Bilbao* liburua Imanol Barberiak. Antzezenaren sintesi den eta izaera didaktikoa eta informatiboa daukan liburua, BBK fundazioak argitaratu du. Bestalde, *Zirgariak* film laburra ikusteko aukera ere egon zen goizean eta herri antzezenaren ostean ere bai.

ANDRA ETORKINENTZAKO LANTEGIAK

Udaleko Immigrazio eta Berdintasun arloek emakume etorkinentzako hainbat lantegi antolatu dituzte euren gizarteratzea sustatzeko asmoz. Hil honetan hasiko dira lantegiok eta astean behin egingo dira topaketak Udalaren Boluntarioen zentroan (Gobelaurre parkea, Erromo). Gai desberdinak landuko dira lantegiotan, hala nola, estres migratorioa gainditzeko teknikak, jatorrizko hezkuntza estiloen eta bertakoen bategarritasuna.

Harremanetarako: 650 017 949



Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

kaixogetxo.net

Etorkinentzako baliabide gida birtuala sortu du Udalak

Getxora orain dela gutxi heldu diren etorkinentzat interesgarriak diren gestioen inguruan azalpenak emango dituen baliabide gida birtuala sortu du Udalak: www.kaixogetxo.net. Besteak beste, eroldatzeko izapideak eta etorkinentzako zerbitzuak kontsulta daitezke: etorkinentzako laguntza eta beren egoera erregulartzeko izapideak, oinarizko errenta, hezkuntza, etxebizitza...

Gero eta gehiago dira Getxon bizi diren etorkinak; beraz, www.kaixogetxo.net zerbitzuaz gain, bestelako egitasmoak martxan jartzea erabaki du Udalak. Esate baterako, etorkinakaz orain arte aurrera eroandako esperientzien berri eman eta aldi berean kanpotik etorritakoak euskaragaz lotzen dituen DVDa kaleratu du *Etorkinak Getxon* izenburupean. 2005ean etorkinak euskarara erakartzeko egindako jardueretan, Folk jaialdian, AISA ikastaroetan eta Munduko Afarietan hartutako irudiak batzen ditu eta ikastetxeetan, eskalategietan zein udal egoitzetan banatuko dute. Halaber, webgunean ikusgai egongo da.

Bestalde, *Etorkin* ekimena ere aurkeztu dute. Etorkinen artean euskara zabaltzeko ekintzen berri emango du eskalategietan, ikastetxeetan eta elkarteetan. Hartzailearen esku geratuko da kopiak egitearen eta leku gehiagotara zabaltzearen aukera. Honako elementu hauek izango ditu kitak: erabiltzeko jarraibidea, CDa, DVDa, posterra eta hartzaileak bere iritzia emateko koaderno bat. m



Aberasturi izozkiak > Getxoko historian protagonista

“Gure produktuak naturalak eta kalitatezkoak dira, Bizkaian ez daukagu konpetentziarik”



Isabel Puertas eta Esther Bilbao Areetako saltoki batean

1926an ireki zuen Benito Aberasturik lehenbiziko izozki denda. Gaur egun Aberasturitarraren hirugarren belaunaldiak dauka Getxon nahiko entzutetsua den negozioa aurrera ateratzeko ardura. Hain zuzen ere, Benito biloba eta Esther dira lan egiten burubelarri dihardutenak, laugarren belaunaldi bat ere izango delakoan.

—Zelan erabaki zuen Benito aititek izozkiak egitea?

— (Benito) Antzina Bilboko turista asko ibiltzen zen Getxo eta Alacantetik etortzen ziren izozkiak saltzera. Nire aititek negozioa zela ikusita, izozkiak egitea erabaki zuen. Bilbon hasi zen, Unamuno institutuan zegoen kiosko batean. Ondoren, Charo Aberasturik jarraitu zuen eta gaur egun Esther eta biok gaude, familiaren arteko gauza da beraz. Guztira sei saltoki dauzkagu.

—Zein da zuen izozkiaren sekretua?

— (Esther) Gure produktuak naturalak eta kalitatezkoak dira. Hasteko, benetako esnea erabiltzen dugu. Gure izozkiek ez daukate koi-perik eta ez ditugu puzten. Horrela, mailuki izozkia benetako mailukiaz egiten dugu: azala kendu ostean, kobrezko galdara batean konfi-

tatzen ditugu. Urrutxakaz ere gauza bera, guk erretzen ditugu-eta. Azken finean, izozkiak egitea artea da. Bizkaian, beraz, ez daukagu konpetentziarik.

—Ez duzue inoiz pentsatu Getxotik kanpo denda bat irekitzea?

— (E) Santoñan bat izan genuen, baina izugarritzko beharra eskatzen du horrek. Langileen gainean egon behar duzu, egunero joan, negozioa zaindu... Izozkia ondo jartzen dutela ziurtatu behar duzu, izotza egin ez dadin. Tontakeriak dirudite baina...

— (B) Bai, Santoñakoari “Helados Beni” jarri genion, gure abizen euskalduna jartzea arriskatua iruditu zitzaigulako... Non eta han euskaldun bat! Berehala damutu ginen, benetako balioa Aberasturi abizena zela konturatu gine-

«Ez ditugu gure izozkiak puzten, benetakoak dira»

lako. Gainera, ostalaritzan izen euskalduna daroanak itzelezko ospea hartzen du. Orain, adibidez, Mallorcako hotel ospetsu batek deitu gaitu, han denda batzuk jartzeko. Baina ez dugu egingo, ezingo genukeelako izozkiak hemen egiten ditugun bezala egin, ezinezkoa litzateke. m

1930eko aitzindariak Getxon

Euskaltegien mugimenduan jardun zutenen lana goraipatzeko **topaketa** antolatu dute



Getxoko udaletxe zaharrean euskarazko eskolak ematen zituzten gerra aurrean

Euskaltegien jarduna, esan beharrik ez dago, oso bestelakoa izan zen hastapenetan. Jakin badakigu gaurko euskaltegiak baino lehenago Euskal Herriko bazter askotan “gau eskolak” izan zirela. Ilkastolen sortze-mugimenduagaz batera zabaldu ziren urte ilun haietan helduak alfabetatzeko euskarazko eskola haiek, gauzez ematen zirenak, alde batean lanorduek eragindako nekea baina burdinazko borondatea zuten ikasleak eta bestean ia musu truk jardun eta ia irakasteko material barik ziharduten “irakasleak”. Getxon 60. hamarkadan euskarazko eskolak Itsasganen ematen zituzten, hala Algortan nola Areetan izan zen eskaintza. Dena dela, udal artxiboan arakatzen ibili ostean, Euskara Zerbitzukoek hurrengo altxorra berreskuratu

dute: 1930. urtean Getxon herritar talde batek “Escuela Vasca” sortu zuen. Udalak utzitako lokaletan eskaintzen ei zituzten 8 andrazkok euskara eskolak; eta interesgarriena, eskolak ume zein nagusiei begirakoak zirela, hasieran, 60 heldu eta 120 ume ibili ei ziren...

Egizu eta udalerriko 3 euskaltegien laguntzagaz, Euskara Zerbitzuak mugimenduan parte hartu zuten irakasle horiei guztiei esker ona adierazi gura die eta horretarako hilaren 27an topaketa bat antolatuko du Villamonteko kultur etxean (19:00). Orain dela 75 urtetik gaur arte euskara eskolak ematen gabiltzala berri ona ala txarra den beste kontu bat da, baina egindako beharra eta horretara ipinitako gogoak eskertzekoa eta goraipatzekoa bada behintzat! m

AQUARIUMAK ZABALIK JARRAITUKO DU

Getxoko Udalak eta Aldundiak Aquariuma erosteko eta zabalik mantentzeko hitzarmena sinatu dute. Azpiegiturak eta lurzorua erosteko milioi bat euro zuzenduko dituzte, Aldundiak 600.000 euro ipiniko ditu eta Udalak gainontzekoa. Halere, oraindik hitzarmena gaur egungo jabeakaz adostea geratzen da, akuarioa ekimen pribatuz eraiki zelako. Udalak hartutako konpromisoaren barruan daude 2025era arte lur horien eta azpiegituren eskumena edukitzea, eta zentroa egoera onean zabalik egotea. Hala, Aldundiak kopuru jakin bat emango du mantenimendurako. Udalak ustiatuko du Getxo izena jarriko dioten akuarioa, eta modu zuzenean edo azpikontratazio bidez egin dezakete; horregaz lotuta, oraindik ez dute EHUgaz ezer adostu, Zarraoak azaldu duenez, “erakunde bakoitzaren helburuak ezberdinak direlako”.

CD-AK BIRZIKLATZEKO ZAKARRONTZIAK

Irail amaierarako herriko hainbat puntutan CD eta DVD erabiliak birziklatzeko ontziak jartzea espero dute udal arduranek. Birziklatutako CDen materiala automozioiko hainbat pieza egiteko oso erabilgarria da. Bizkaian urtean 8 milioi CD kontsumitzen ei dira eta horrelako ekimen bategaz milioi bat berreskuratzea espero dute.

584.000 EURO GETXO ANTZOKI BERRIRAKO

Udal Batzan adostutakoaren arabera, beste 584.000 euro gehiago bideratuko ditu Udalak Getxo Antzoki berriaren egitasmorea. Zenbatekoa 2005eko udal aurrekontutik sobera gelditutako zati bat da, arduradunek diotenez. Lanak 2007ko bigarren hiruhilekoan hasita egotea espero dute eta 2010 aldera amaitzea. Bestalde, antzokiaren atzeko aldean dagoen lur zatia erostea ere erabaki dute (900.000 eurotan), instalazio berrien parte bat han lekutuko dutelako.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Eukene Fernandez > Solasguneko pedagogoa

“Jendearen beharizanak asetzen saiatzen gara”

Leioan Heziketa Sortzailea edo pertsonen adierazmena lantzen duen Solasguneko pedagogoa da Eukene Fernandez. Mota horretako tailer gutxi daude Euskal Herrian eta inguruan; Bizkaian, Gipuzkoan, Kantabrian eta Valentzian besterik ez. Leioakoak hiru arlotan egiten du behar: inguruko eskoletan, Solasguneko tailerretan eta haurdunaldia zein jaioberrien zaintzan laguntza eskaintzen du.



Eukene, Une alaba altzoan duela

—Zer da Heziketa Sortzailea edo adierazmena?

—Pertsona bakoitzak dituen berezitasunak berreskuratzeko baldintzak eskaintzea da. Adierazmena zure behar bat da; jatea, lo egitea edo sexu harremanak edukitzea bezala. Baina, eguneroko bizitzan hori lortzeko baldintzak ez dira betetzen eta guk beharizan hori asetzeko aukera ematen dugu. Horretarako, talde heterogeneoak osatzen ditugu: 5 urteko ume bat 16 urteko gazte bategaz, etab. Izan ere,

beharrezkoa da, betiere, epairik ez egotea eta lehiakortasunik ez ematea. Tailerrera heltzen den pertsona batek bertan bera izan daitekeela sentitzen du, bere gorputzak eskatzen diona egiten du momentu horretan. Adibidez, berba egitea behar bat da, baina zuk debekatuta daukazu askotan, gizarteko arau batzuk bete behar dituzu-eta. Ba gurea, berba egiteko leku txiki bat sortzea bezalakoa izango litzateke. —Zein da zuen lana?

—Hiru gunek sortu ditugu: eskoletan lantzen ditugun ekintzak, gure tailerrean burutzen ditugunak eta haurdunaldiaren ingu-

ruan eskaintzen dugun informazioa. Guretzat lan garrantzitsuena tailerrekoa da, gure ustez, arrakalik ez duen sistema delako. Hain onuragarria da, ezen energia guztiak horretan jartzen ditugun. Guk lagundu besterik ez dugu egiten. Adibidez, margo tailerrean pintura jausten bada, garbitzea; dantza tailerrean norbaitek estropozu egiten badu, prakak luzeegiak dituelako, ba horiek batzea... Bertan egiten duzun lana, gainera, ez da lokaletik irteten, pertsonaren intimitatea arriskuan ez jartzeko.

«Adierazmena beharra da; jatea edo lo egitea bezala»

—Haurdunaldiaren inguruan informatzen duzue.

—Bai! Haurdunaldian edo erditzean ditugun esperientziak ez-naturalak dira, kontaktua galdu dugu gure gorputzagaz. Emakumeak informazio hori edukitzea oso garrantzitsua da, erabakitzeko aukera izateko. Nik umea etxean eduki nuen eta izugarria da hori. m

Euskaraz jolastu

Umeentzako **Txilinbuel**taka eta **Olgetan** programak jarriko ditu martxan Euskara Zerbitzuak



Euskara gizarteko eremu guztietan sustatzea da programen helburua

Aurten ere, Txilinbuel

taka eta Olgetan programak martxan jarriko ditu Leioako Euskara Zerbitzuak. Umeek eskola orduetatik kanpo euskaraz egitea da egitasmo bien helburua, hau da, gure hizkuntza kontestu ezberdinetan erabil daitekeela irakastea.

Txilinbuel

taka 2006 programak umeentzako egonaldiak antolatzen ditu asteburu luzeetan eta pazko-astean. Gutxienez hiru edo lau eguneko elkarbizitza egiten dute euskaraz. Eskaintzen diren ekintzak irteeraren arabera dira; taldearen zein lekuaren arabera alegia. Aurten, esate baterako, Pasai Donibane (urrian) eta Segura (abenduan) dira aukeratutako herriak. Ingurune euskaldunean bizi diren lekuak hautatzen saiatzen dira, haurrek eus-

karaz bizi den jendea dagoela ikus dezaten.

Pasai Donibanera joan gura duenak urriaren 2tik 5era egin beharko du matrikula eta Segurara doanak, berriz, azaroaren 27tik 30era. Behar duenak, gainera, dirulaguntza eska dezake irteera ordaintzeko.

Bestalde, umeek eguneroko ordubete euskaraz jolasean emateko ekimena da Olgetan. Euskaraz hitz egiteko motibazioa landu gura du programak. 5 urtetik 11 urtera bitarteko haurrek parte har dezakete eta horretarako urriaren 2tik 6ra eman beharko dute izena Udal Euskaltegian. Txomin Aresti eskolan burutuko dira ekintzok (jolasak, tailerrak...), asteleheneetik barikura, 17:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:00etara. m

AIRE IKUSKIZUNA
PRESTATU DU
DEAMBULANTS TALDEAK

Del Cel aire ikuskizuna eskainiko du irailaren 23an Kataluniako (Girona) Deambulants taldeak. Kultur Leioak Errekalde plazan daukan fatxadan egingo dute emanaldia, 22:00etan. Urteetako ikerketen emaitza da *Del Cel* eta, besteak beste, argiztapena, eszenografia, musika eta antzezpena uztartzen ditu. Guztira, sei aktore (Josep Bosch, Montserrat Canals, Jordi Miquel, Mariona Moya, Mariona Ortega eta Paula Radresa) izango dira eraikinaren goiko aldean eta horma izango da eurentzako lurra. Musika, berriz, Zesar Martinezen eta Ignaci Picorelliren esku egongo da.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA



BETIKO
IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, (sukaldea bertan)...
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA
Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net
www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

2006- 2007
matrikula zabalik

HABEren 4. maila
ordutegi guztiak

"masti klik" autoikaskuntza (boga)

Ega+habe1+habe2 tituluak

Mastiten Euskaltegia
Leioako Udala

Iparragirre etorbidea 78 48940 Leioa www.euskaltegieleioa.com tel.94 464 00 02

Leioako Udala

ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

IPARRAGIRRE ETORD. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Nagore Ozerinjauregi > psikologoa

“Gorputzeko hainbat **organo aktibatu** eta **substantzia askatzen** ditu barreterapiak”

Datorren azaroaren 8an Altzagako Kiroldegian barreterapiako tailerra eskainiko duen taldeko kide da Nagore Ozerinjauregi psikologoa. Deustuko Unibertsitatean ikasketak amaitu ostean, Madrilera joan eta barreterapiako ikastaro bat egitea erabaki zuten berak eta bere ikaskide batzuek. Gaur egun, bakoitza bere gauzatan dabilen arren, ikastaroak eskaintzen jarraitzen dute.



Ikastaroan izena emateko: 94 602 58 91

—Zer da barreterapia?
—Espektakulu baten modukoa dela pentsatzen dute askok, guk dena egingo dugula. Baina aktiboa da eta barrea ateratzeko teknika guztiak taldeagaz aurrera eroaten saiatzen gara. Barreterapiaren jatorria zaharra da, historian mendeak eta mendeak atzera egin behar dugu, bufoien garaietara. Orduan, baina, ez zen terapia moduan existitzen, osasunaren ikuspegitik betidanik ikerketak egin diren arren.
—Modan al dago?
—Bai, jendea erakarri egiten du. Baina ares-tian esan bezala, badaude ikaratu egiten direnak hasiera batean besteek egindako beharra dela uste dutelako, baina argi eduki behar dute hori ez dela horrela eta taldean parte hartzea zein ekarpenak egitea oso garrantzitsua dela.

—Barreterapiaren onurak.
—Pilo bat! Fisikoki, gorputzeko hainbat organo aktibatu egiten dira eta substantzia mordoa askatu. Tailerretan horren inguruko azalpenak ematen ditugu; izan ere, jendeak ez du uste hainbesterako denik. Tentsioak askatzen dira bihotzean, giltzurrunetan, gibelan... Azken batean, negar egitea bezalakoa da. Psikikoki, berriz, lotsaren kontra egitea eskatzen du: zure gorputzagaz, egiten duzunagaz eta sentitzen duzunagaz gustura ego-

tea. Lehenengo barrea irtengo zaizu, baina lantzen zoazen heinean konplizitatea lortzen da, besteak ezagutzen dituzu...
—Terapiako giroa zelakoa izaten da?
—Lehenengo eta behin, zelako taldea eratu den ikusi behar duzu, horren araberrako giroa izango duzulako. Jendeak parte hartzeko benetako interesa badauka, ez da arazorik egongo. Halere, argi dago mundu guztiak ez

«Guztion parte hartzea eskatzen du barreterapiak»

duela joko guztietan ondo pasatuko, bakoitzak muga batzuk ditu-eta, baina gutxieneko erantzuna eskatu behar da. Horretarako, dinamika prestatuta eroan behar duzu, martxan aldaketak egingo badizkiozu ere.
—Zein teknika erabiltzen duzu?
—Aurkezpen jokoakaz hasten gara. Apurka-apurka jendea taldetik ateratzen dugu, kon-tuan hartuta batzuei gehiago kostatzen zaie-la. Halere, badakite denak irtengo direla eta euren burua behartzen dute. Ondoren, gara-pen fasea dator. Dagoeneko, konfiantza dago eta jendearen parte hartzea libreagoa da, gau-zak denon artean egiten dira. Saioa erlajazio ariketa batzukaz amaitzen da. Hori guzti hori jarraipen bategaz eginez gero, emaitzak hobeto ikusiko dira. Aurrerapenak atzemate-ko denbora nahikorik ez dagoela da tailerren arazorik handiena. m

Errepublikako kartelak

Gure gizartearen **historia latzena** erakutsiko du EPK-k **hormairudien** bitartez



Errepublika garaiko kartela

Irailaren 18tik 21era arte, Espainiako II. Errepublikako eta Gerra Zibileko kartelak egongo dira ikusgai Erandioko Udaleko Erakustaretoan. Erakusgela 18:00etatik 21:00etara egongo da irekita.
Guztira, 50 bat hormairudi erakutsiko dituzte. Garai hartan talde politikoez zein gizarte eragileek jarritako kartel koloretsuak

erakusten ditu bildumak. Horrez gain, ga-rai hartan bizitakoak azalduko ditu erakusketak. Horretarako, aditu batek emango duen hitzaldia antolatu dute irailaren 21-erako.
EPK-k abian jarritako ekimena da kar-telena eta gure gizartean hain latza izan zen historiaren zati baten berri ematea bilatzen du. Irudi batzuk alderdiak berak jarritako-ak dira, baina beste batzuk Salamancako, Madrilgo eta Bartzelonako artxibategian eskatu behar izan dituzte.
Gatazkaren alde guztien kartelak eske-giko dituzte, bai errepublikaren aldekoak zein Francoren altxamenduaren aldekoak. Hain zuzen ere, egoeraren ikuspegi oroko-rra eskainiko digu erakusketak: presoen egoera, faxismoa, Errepublikako gobernua, alderdi politikoak, sindikatuak, herria, guda, nazioarteko brigadistak...
Gura duenak, beraz, aukera paregabea dauka hil honetan Erandion gaur egun oraindik gure artean bizirik jarraitzen duen gizartearen zati handi baten oroitzapenak eta bizipenak deskubritzeko. m

LAS CICATRICES DE LA MEMORIA ANTZEZLANA ALTZAGAKO AZOKAN

Irailaren 22an, *Las cicatrices de la memoria* lana antzeztuko du Ikastola Teatro taldeak Altzagako Azokan. Francoren garaian, mugimendu sindikalistaren bitartez ezagutzen diren bi maitalaren istorioa kontatzen du lanak. Politika da euren lotura hasiera batean, baina gutxinaka-gutxinaka maitasuna euren bizitzan sartuko da, monotoniak beraien harremana puskatzen duen arte. Arratsaldeko 7:00etan hasiko da emanaldia eta gonbidapena beharrezkoa izango da berau ikusteko.

Informazio gehiagorako deitu hurrengo telefono zenbakira: 94 489 01 40.

MUSIKA KONTZERTU DIDAKTIKOA EGINGO DUTE MOZARTEN OMENEZ

Irailaren 29an, barikua, musika kontzertu didaktikoa antolatu dute W.A. Mozarten omenez. Impromptu taldeak eskainiko du emanaldia eta musikariaren lan ezagunenak jotzeaz gain, bere bizitzaren zein sormenaren inguruko informazioa eskainiko du. Horretarako, hiru izango dira guztira erabiliko dituzten musika tresnak: bibolina, pianoa eta klarineta. Ekitaldia Josu Murueta kultur etxean izango da, arratsaldeko 7:30ean. Gonbidapena beharrezkoa izango da.

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Euskara ikastaroak Cursos de euskera 2006/2007

URRIA - EKAINA OCTUBRE - JUNIO

* Euskalduntze eta alfabetatzea	* Euskaldunización y alfabetización
* Ega + HABE 1 + HABE 2 tituluak	* Titulos Ega + HABE 1 + HABE 2
* Ordu-tegi guztiak	* Todos los horarios
* Euskara zerbitzuaren beka eta dirulaguntzak	* Becas y ayudas del servicio de euskera
* Ekitaldiak, euskaraz	* Actividades en euskera
* BOGA, internet bidezko irakaskuntza	* BOGA, enseñanza por internet

MATRIKULA EPEA ZABALIK PLAZO DE MATRICULA ABIERTO

*CLASES en Astrabudua (IES Astrabudua) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)

ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Bekoa Ikastetxea Desanexión kalea, 4 behe Tel.: 94 467 60 75
erandio.eusk@euskalnet.net / www.erandioko-udala.net

BIDEGORRIA ERAIKITZEA
ATZERATUKO DU UDALAK

Uribe Kostako koridorea amaitu arte bidegorria eraikitzeo lanak etetea erabaki du Sopelako Udalak. Eraikitzen ari diren errepideak udalerriko trafikoa eragina izango duela da ordezkariak eman duten arrazoia; izan ere, bizikletentzako bideak herria zeharkatuko du etorkizunean. Hasierako fasean, Sopelako erdialdea eta Zipiriñe ikastetxea zein Sopelako institutua batu gura ditu bide berriak, ikasleek eskolara txirindulaz joateko aukera izan dezaten. Bigarren fasean, berriz, bidegorriak eraiki gura dituzte hondartzetarako.

SOPELBUSEK
ERABILTZAILE GEHIAGO
IZAN DITU AURTEN

Arrietara hondartzara doan autobusak joan den urtean eroan zuen bidaiarien kopuru bikoitza (14.396) garraiatu du aurtten. Atxabiribilera doan ibilgailuak, berriz, iaz baino 1.000 erabiltzaile gehiago eduki ditu, 11.161 lagun. Datu horiei irailkoak gehitu beharko zaizkie, Sopelbus zerbitzuko arduradunek jakinarazi dutenez. Oraingoz, beraz, bidaiarien %52ko hazkundea eman da. Hazkundea emateko arrazoi nagusiak bi direla azpimarratu du Udalak: jendeak dagoeneko badakiela zerbitzua nola erabili eta aurtten creditansa erabili ahal izan dela bidaiatzeko.

IA 120 KORRIKOLARI
BARINATXEKO
LASTERKETA NUDISTAN

Irailaren 9an Barinatxe hondartzan egin zen VII Trofeo Patxi Ros lasterketa nudistan 117 korrikolarik parte hartu zuten, hala ENEK (Euskal Naturista Elkartek) antolatzen duen lasterketa urterik urte haziz doa. Aurtengo ekitaldian lehenengo helmugaratu zirenak hurrengoak izan ziren: Fernando Suances Ieioaztarra, Jone Etxebarria eta gaztetxoan mailan Mikel Rodriguez.

Arabeta inguruko lanak
Hegoaldeko ingurubide berria zabaltzeak
hainbat hobekuntza lan egitea eragingo du



Iberrerako bidea zabalduko dute

Uribe Kostako korridoretik Sopelarako sarbide edo irtenbide berria (hegoaldeko ingurubidea) dela eta, Arabeta inguruetan hobekuntza lanak egingo dituela jakinarazi du Sopelako Udalak. Egitekoen artean daude, besteak beste, espaloiak zabaltzea, inguruan dauden disuasio-aparkalekuak aldatzea eta Urkoko biribilgunearen alboan parking berri bat sortzea. Horrez gainera, korridoreko tartearak norabide bietan bina bide dauzka, baina behin Iberrerako bidea lotzen duten biribilgunea pasatzerakoan errepidea estutu egiten da; traba hori gainditzeko bide zati hori zabaltzea erabaki du Udalak. Hegoaldeko ingurubide berria

martxan jartzeak beste aldaketa batzuk ere eragingo ditu, hala nola, aurrerantzean Gatzarriñetik korridorerako bide hori erabiliko duten autoek lehentasuna edukiko dutela .

Bestalde, korridoreak eta bestek sortutako trafiko-etorriak eta aldaketak zein eragin izan duten jakiteko ikerketa bat gauzatzeko asmoa dutela adierazi dute udal arduradunek eta beharrezkoa izanez gero aldaketa berriak egingo dituztela. Izan ere, azterketaren emaitzak jakiteko zain daude hainbat egitasmo abian jartzeko, adb.: bidegorrien sarearen proiektua, hezkuntza zentroak eta erdigunea lotuko ei dituenak. m

Udal Euskaltegiaren 20. urteurrena

Aurtengo ikasturtean **urtemuga ospatzeko** hainbat ekintza antolatzeo asmoa daukate



Sopelako Udal Euskaltegian diharduen lan-taldea. Harremanetarako: 94 676 31 54

Orain dela 20 urte irail partean ere, 5 lagun bildu eta udaletxe zaharreko gela batean erne zuten Sopelako udal euskaltegiako hazia. Irakasle haien artean Agurtzane Molina eta Itziar Iturregi zeuden, eta nortzuk hobe azken 20 urteotako ibilbideaz jarduteko baino? Lehenengo hilabete hura matrikulak betetzen eman zuten eskura *“telefonoa, boli bat eta gela bat”* besterik ez zeukatela; bitartean eta eskolak hasi ordurako Enrike Urrutikoetxea kaleko eraikina amaitu zuten eta ordutik han irakatsi dute euskara 20 urtez. Alabaina, egoitza hori txiki lotu zaiela eta berria beharrezkoa dela aitortu badute ere, ez daude lar ados Udalak euskaltegirako eskaini nahi dien kokaleku berriagaz, *“uste dugu urruntxu dagoela, herriatik kanpo...”*.

HABEk argitaratutako liburutzarra oinarri hartuta eta *“inork zer egin ezta zelan ere”* esan barik ekin zioten lanari; *“onain baliabide gehiago dago, material gehiago, internet... halere, klaseak emateko gehiago sortu behar dugu, eskolak libreagoak dira...”* azaldu dute Agurtzanek eta Itziarrek. Irakasleak berez prestatuago daudela ere

onartu dute *“urteotako esperientziak asko lagundu digu, ikastaroak egiten dira, koordinazio handiagoa dago...”*. Hastapenetan 7 ikasle talde sortu ziren, eta iaz alfabetatze eta gurasoei begirako ikastaroak kontuan hartuta 17 izan ziren, 180 ikasle inguru. *“Jende gazteagoa dator; baina ikasle mota asko-asko aldatu da; lehen benetan euskaltzaleak zirenak etortzen ziren, askoz ere motibatuagoak, klasetik kanpo ekintzak egiteko prestuago egoten ziren... orain azterketa bat prestatzera gainditzeko datoz”*, adierazi dute. 20. urteurrena ospatzeko ba-

«Lehen ikasleak askoz
ere motibatuagoak
etortzen ziren»

daukate hainbat ekintza egiteko asmoa, oraindik zehaztu barik badaude ere; baina horretarako balibide ekonomikoan bila dabilta momentu honetan, Udalaren eta Euskara Zerbitzuaren atearak jotzen batez ere. Bestalde, Sopela ala Sopelana idatzi behar den galdetuta zera diote: *“geuk beti Sopela esan eta gure papere-tan Sopela idazten dugu, baina Udalak Sopelana onartu duenez...”*. m

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhilton@euskalnet.net



GALEA
ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12
Fax: 94 491 11 31



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIAK
Taberna

Zatoz
gure tabernara!

Bentatxu, 2
48600 Sopela

ASIER MENTXAKA
ARGAZKILARIAREN
ERAKUSKETA
HILAREN 18TIK 29RA

UK-ko argizkilariaren begi zorrotzak eta begirada “ilunak” azkenengo 5 urteotan batutako irudien lagintzat har daiteke ia 20 argazkiz osatutako erakusketa; getxozarrak adierazi duenez, “norabide bako paseo bat Uribe Kostan zehar”. Erakusketa ibiltaria eskualdeko hainbat kultur etxetan egongo da gozagai eta lehenengo topalekua Berangoetako kultur etxean izango da irailaren 18tik 29ra.



9.300 EURO BIDERATUKO
DITU UDALAK INDIARA

Vicente Ferrer Fundazioaren bidez, Berangoko Udalak lankidetzako egitasmo batean parte hartzen du Indian. Arraza baztertuenetako, *dalit*-eko, 40 emakumeren aldeko proiektua da; andrazkoek nekazaritza ez den beste ogibide bat ikasteko aukera izan dezaten, hala euren familientzako diru sarrerak lortu eta emakume dalitek jasaten duten bazterketari aurre egiteko aukera ere izan dezakete. Udalak 9.300 euro bideratuko ditu egitasmo horretara eta hurrengo urtean mota horretako lankidetzako proiektuetara aurrekontuaren %0,7 zuzentzea espero dute.

Umeentzako areto berria

Berangoetako ludoteka handituko dute



Araudi berriaren arabera, gurasoak ezin izango dira aurrerantzean ludotekara sartu

Berangoetako kultur etxea handitu eta horren funtzionatzeko era aldatuko du datorren ikasturtean Udalak. Biltegiko atea kendu eta horma behera botako dute gela poliobalente bat eraikitzeko. Horrez gain, neguan ere umeak kalean egoteko aterpea eta jolas parkea jarriko dute eraikinaren atzeko aldean. Lan horiek urrian hastea aurreikusten dute aduradunek. Neurri horien guztien helburua Santa Anako auzoan dagoen antzeko aretoa lortzea da.

Behin eraberritze lanak amaituta, begiraleek izango dute aretoa txikitxoentzat modu egokian apaintzeko ardura.

Funtzionamenduari dagokionez, umeak hiru taldetan banatuko dituzte adinaren arabe-

ra (3 urtetik 6ra, 7tik 9ra eta 10etik 12ra bitartekoak); horrela, hiru eta bederatzi urteko haurrak ez dira, orain arte bezala, txanda berean egongo eta, ondorioz, euren zuzendutako ekin-tzak hobeto burutuko dira.

Berrikuntza horiek guztiak udal araudi berria indarrean sartzeagaz batera prest egotea gura dute udal ordezkariak. Lege berriaren arabera, gurasoak ezin izango dira ludotekara sartu eta begiraleek antolatutako jokuak, tailerrak, etab. oztopatu.

Udalak egindako aurreikuspenek diotenez, 50 bat izango dira irailetik aurrera Berangoetako ludotekako zerbitzuak jasoko dituzten umeak. ^m

Uribe Kostako azpieuskalkia > ikerketa

Uribe Kostako **hizkuntz ondarea** batzeko ikerketa abian da; egitekoak **bi urteko** epea du



Batutako datuakaz eskola umeentzat unitate didaktikoak osatuko dituzte, liburu eta DVD euskarrietan. Argazkian, Akaitze Kamiruaga urduliztarra, ikerketa lan-taldeko kidea.

Uribe Kostako Mankomunitateak eta Getxoko Udalak eskualdeko hizkuntz ondarea berreskuratzeko sinatu zuten hitzarmenaren barruko ikerketa martxan da. Labayru ikastegiak garatuko du azterlana, dagoeneko lauzpasei laguneko lan-taldea osatu dute eta Akaitze Kamiruaga filologo eta ikertzaile urduliztarra dabil koordinatzaile. Egitekoa gauzatzeko 76.096 euro bideratuko dituzte, Getxoko Udalak 39.197 euro emango ditu eta Mankomunitateak 36.899 euro.

Galtzeko zorian dagoen Uribe Kostako azpieuskalkia batzea eta berreskuratzea da asmoa. Horretarako, lehenengo informazioa biltzen hasi dira (etnolinguistika, lexikoa, fonetika etab.), audio eta bideo grabazioak egingo dituzte. Eskualdean jaioetako adineko 65-100 lagun elkarrizketatuko dituzte, alfabetatubakoak ahal bada (etxeko euskara bere horretan jasotzeko) bakoitzagaz berbaldi bat baino gehiago egingo dute, eta besteak beste hurrengo gaien gainean jardungo dute: antzinako bizmodua, base-ria, itsasoa, eskola, txarribodak, elikadura, erromeriak, janzkera, nekazaritza, abel-

tzaintza, arrantza... horrez gainera, bertoko kantua, esakera, asmakizunak, etab. jasoko dituzte. Ostean, unitate didaktikoak sortuko dituzte, liburu eta DVD euskarrietan. Momentuz, Haur Hezkuntzara eta Lehen Hezkuntzara zuzendutako materiala izango da, baina Kamiruagak aurreikusi legezt, “*informazioa jasota geldituko denez etorkizunean beste esparru batzuetan erabili ahal izango da, adb. gazteak, euskaltegiak,*

«Inguruetan jaioetako adineko 65-100 laguni egin dizkiete elkarrizketak»

bertso eskolak...”. Hala eta guztiz ere, eskola umeen gurasoek eta irakasleek ere erabili beharko luketen materiala dela azaldu du Kamiruagak: “*Belaunaldiz belaunaldiko aho-transmisioa galtzen dabil eta material honegaz, ahalegina eginez gero, agian berreskura dezakegu*”. Bestalde, zubi-lana egin beharko dela iragarri du: “*Zubiak osatu behar dira 3 euskara desberdinak lotzeko; gure azpieuskalkitik bizkaiera literarioa eta hortik euskara batua*”. ^m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

cianoplan Reprografía

global printers

Villa de Pientzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
http://www.cianoplan.es

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
enmarkaketak •

GPS SISTEMA ERABIL
DAITEKE GORLIZEN

GPS nabigatzailea erabiltzeko 50 interesgune (PDI edo POI deituak) argitaratu ditu Turismo bulegoak. Horien bitartez, Gorlizera doazen bisitariei baliabide turistikoen edota zerbitzuen bilaketa erraztea espero dute arduradunek. Hala, ostatuen, osasun zentroen, udal zerbitzuen, garraioen, aparkalekuen, kirol azpiegituren... kokalekua zein bisita turistikoen informazioa jasoko dute GPSaren erabiltzaileek. Interesguneak formatu desberdinetan egongo dira eskuragarri nabigaitzaile ezberdinetan kargatu ahal izateko. Bestalde, nabigatzailerik ez daukatenek interesguneak bere ordenagailuan ikusi ahal izango dituzte, doan, “Google Earth” programaren bidez, eta horrez gainera satelitek ateratako argazkiak ere ikus ditzakete.

BETIZU BEHIEK IKUSKIZUNA
ESKAINIKO DUTE BARRIKAN
HIL AMAIERAN

Kultur Etxeak antolatu duen Betizu ikuskizunagaz gozatua hartzeko aukera izango dute txikienek Barrikan. Ekitaldia hil amaierarako dago iragarrita, irailaren 30ean. Betizu behiakaz topalekua udaletxe aurreko plaza izango da eta telebistako behirik ezagunenek 11:00k aldera ipini dute hitzordua. Beraz, betizurik ospetsuenakaz abesteko, dantza egiteko, mugitzeko, kontzertua ikusteko... gogoia daukanak badaki non eta noiz jarri duten zita ETBko behi martxosoenek.

GORLIZ

Estazio meteorologikoa eta webcam-a martxan



Udalaren webgunean ikus eta jaso daitezke datuak: www.gorliz.net

Badian lekutu du Udalak Kultur Etxearen laguntzaz estazio meteorologikoa, besteak beste, hori delako Bizkaiko kostaldean eguzki ordu gehien jasotzen duen gunea. Estazio meteorologikoak tenperatura, hezetasuna, presio barometrikoa, euri kopurua eta haizearen abiadura zein norabidearen gaineko datuak batzen ditu. Bertan bildutako informazio hori guztia eguraldiaren iragarpenagaz batera Udaleko web orrialdean dago kontsultagai. Horrez gainera, arduradunek jakinarazi dutenez, Gorlizko estazio meteorologikoak batutako datuak maximoen eta minimoen

aldizkako estatistikak osatzeko erabiliko dira.

Bestalde, alde turistikoa sustatzeko asmoz, Udalak eta Kultur Etxeak webcam bat paratu dute hondartzan. Horren bitartez, Gorlizko badiaren zuzeneko irudia ikusi ahal izango dute sareko erabiltzaileek, Udaleko webgunean sartuz gero. 24 orduz dago martxan kamera, argi gutxiko momentuetarako gau-bisore bat dauka eta irudia 30 segunduan behin berritzen da. Udazkenean kameraren angelua aldatuko ei dute hondartzako lanen jarraipena egin ahal izateko. ^m

[agenda]

Irai. 17 - urr. 1

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Crisis olvidadas. Vidas ignoradas.** Argazki erakusketa. Mugarik Gabeko Medikuak. Josu Murueta kultur etxea. Irailaren 11tik 29ra.
► **Errepublikako kartelak.** Udaleko erakusketa aretoa. Irailaren 18tik 21era arte. 19:00.

GETXO

► **Fotorretro Getxo 2006.** Algortako Geltokia plaza. Irailaren 27tik urriaren 1era arte. Egun osoan zehar.

GORLIZ

► **Victor Cuadradoren artelanak.** Udal erakusgela. Irailaren 17tik 24ra.
► **Argazki Lehiaketako erakusketa.** Udal erakusgela. Irailaren 26tik 30era arte.

PLENTZIA

► **IV. Margo Lehiaketaren Erakusketa.** Goñi Portal. Irailaren 10etik 30era arte.

ANTZERKIA

GETXO

► **Todos nacemos vascos.** Getxo Antzokia. Irailak 23, zapatua. 20:00. Sarrera: 15 euro.

LEIOA

► **El Caserio.** Zarzuela. Auditorium. Irailak 22, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.

ERANDIO

► **Las cicatrices de la memoria.** Altagako merkatua. Irailak 22, barikua. 19:30. Gonbidapenagaz.

ZINEMA

► **Iparra galdu gabe 06**

Ipar Euskal Herria Getxora hurbilduko da

Iparraldeko ohiturak Getxora ekartzeko ekintzak eta ikuskizunak antolatu dituzte urriaren 3tik 8ra bitarteko. Denetarik egongo da: kantuak, gastronomia, musika, kondairak, kale animazioa, hitzaldiak... Jarduerak urriaren 3an hasiko dira Xan Errotabehere ipuin kontalariagaz. Hurrengo egunean, berriz, Maialen Errotabehere kantariak emanaldia eskainiko du. Urriaren 5ean, Lucien Etchezarreta kazetariak iparraldeko literaturaren berri emango du hitzaldi batean. Niko Etxartek ere bere txokoa izango du eta kontzertua eskainiko du Dominika Etxartegaz eta Robert Larrandaburugaz batera. Baina ekitaldi nagusia, duda barik, Getxo Antzokian egingo duten Batek Mila ikuskizuna izango da, urriaren 8an.

• **Non:** Algorta • **Noiz:** urriaren 3tik 8ra

PLENTZIA

► **Munich.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Irailak 22, barikua. 22:15.
► **Bibi la pequeña bruja.** Umeentzako zinea. Goñi Portal. Irailak 23, zapatua. 18:00.
► **El jardinero fiel.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Irailak 29, barikua. 22:15.
► **Sky.** Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Irailak 30, zapatua. 18:00.

BESTEAK

ERANDIO

► **VII. Nekazaritza Azoka.** J.A. Mendiguren plaza (Astrabudua). Irailak 17, domeka.
► **Always Drinking Marching Band, Tenores di Bitti, Fanfiar.** Kontzertua. Alzaga. Irailak 17, domeka. 12:30.
► **Musika kontzertu didaktikoa.** Mozart. Josu Murueta kultur etxea. Irailak 29, barikua. 19:30.

Gonbidapenagaz.

GETXO

► **V. Erdi Aroko Azoka.** Algortako Basagoiti etorbidean zehar. Irailak 17, domeka (azken eguna). 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.
► **Getxokontari Jaialdia.** Umeentzako eta nagusientzako ipuin kontalariak: Rosa M^a Martinez, Maite Franko, Pello Añorga, Antton Irusta, A la luz de las velas... Euskaraz eta gaztelaniaz. Algortako Geltokia plaza, The Piper's Irish Pub, Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Irailaren 22tik 24ra arte.
► **I. Bigarren Eskuko Liburuen Azoka Solidarioa.** Algortako Geltokia plaza. Irailaren 28tik 30era arte. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

BARRIKA

► **Betizu jaia.** Irailak 30, zapatua. 11:00etan.

GORLIZ

► **XV. Mountain Bike.** Irailak 24, domeka. 9:30.
► **Euskeraz Olgetan.** Iberrebarri. Irailak 24, domeka. 12:00.
► **Kontsumoari buruzko hitzaldia.** Erakusgela. Urriak 1, domeka. 18:00.

LEIOA

► **DEL CEL. Deambulants.** Aireko espektakulua. Kultur Leioako fatxada. Irailak 23, zapatua. 22:00.
► **Iturriaga laukotea.** Musika klasikoa. Auditorium. Irailak 29, barikua. Sarrera: 6 euro.

PLENTZIA

► **Plentziatik Sopelara ibilaldia.** Astillero plaza. Irailak 17, domeka. 9:00. Matrako mendi taldearen ekinema.

BILBO

► **Nun talde leioaztarraren kontzertua.** Kafe Antzokia. Irailak 22, barikua. 10:00. Gringo taldeak ere emanaldia eskainiko du.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
Tel. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@vasa.biz

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Sanantolinak

Bilboko Aste Nagusiaren ostea pasa barik hasi ziren sanantolinak Plentzian. Urtero legez, Andra Mariko igoerak eman zien hasiera jaiei -inoiz baino alaiagoa izan zen igoera, gazteen herri bazkariak zerikusirik izan ete du?- eta Antolintxuren agurrak amaiera tristea. Bien artean egun aipagarrienak Azoka eta Koktel eguna izan dira. Egundietan bertoko produktuak majo kontsumitu zituzten, baina era diferentean. Lehenengoan, barazkiak, txerriak, gaztaiak, etab. erosi, taloa jan eta txakolin apur bat edan; bigarrean, berriz, tabernekin prestatutako koktel miragarriak edan eta apur bat jan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**




Uda?

Willy Uribe

Aurrengo uda grisa izan da oso. Ez du euri askorik bota, baina Euskal Herrian geratu direnek laino lodien pean igaro behar izan dituzte euren oporraldiko egunik gehienak.

Kontsolazioaren bila edo, hondartzetan osteratxoak egiten jende asko ikusi dugu, zerua bezain ilun egon den itsasoan hankak freskatzen. Ze erremedio!

SOPELAKO HONDARTZA, 2006KO UZTAILAREN 3A



[berbetan]

Donostiarra da, baina aspaldidanik dauka bizilekua Madrilen. Juan Lopez de Uralde Greenpeaceko zuzendari exekutiboa da Espainiako estatuan. Karguaren izenak, egia esan, enpresa handiak dakarzkigu gogora, talde ekologistak baino. “Greenpeacen -esplikatu digu Lopez de Uraldek- oso handia da eragin anglosaxoia, izenak berak agertzen duenez. Nire kargua, honenbestez, *executive director* esamoldearen itzulpena da, halaxe esaten diote-eta ingelesez”. Azalpena irakurrita, inor ez da harrituko Greenpeacen ontzia izena *Rainbow Warrior II* dela gogorarazten badiogu; ezta ere, mundua zelan dagoen ikusita, orain gitxi Espainiako portu batean sartzea galarazi ziotela esaten dugunean. Gai horretatik abiatuta mamitu dugu elkarrizketa Lopez de Uraldegaz, Bilbora egindako bisitaldi labur bat baliatuta. Bizilekua Madrilen daukala esan dugu, baina berak nabaritu duenez, ez da oso bizileku finkoa, beti dabil-eta bidaiaren batean. Madril, batez ere, itzulerako portu da ortzadarreko gudari honentzat, lehorreko portu izanagatik ere.

Juan Lopez de Uralde

Greenpeacek badu lemazainik lehorrean

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Derrigorrez hasi beharko gara zuen itsasontziaz, *Rainbow Warrior II*-az, berbetan. Cartagenako portura sartzea galarazi zioten-eta orain gitxi...

—Bai. Bizi garen egoeraren ondorioa da hori. Naturaren baliabideen aldeko borroka gero eta biziagoa da; hemen, Kantaurian, antxoaren kontuagaz ikusi dugu itsasoko baliabideek gero eta mehatxu handiagoa jasaten dutela. Eta Mediterraneoan, berriz, arazoak dagoz atun hegala-burragaz; gero eta gutxiago geratzen da, gehiegi arrantzatzeagatik. Hori salatzen gabiltza, eta hainbat arazo eduki dugu: Marsellan arrantzaleek eurek egin zioten eraso gure ontziari, eta gero Cartagenakoa gertatu zen.

—*Rainbow Warrior*, izan ere, kondaira da ia-ia, baina Greenpeace hori baino gehiago da noski...

—Askoz gehiago. Greenpeace erakunde ekologista eta bakezalea da, globala, poli-

tikoki eta ekonomikoki independentea. Gure bazkideen diru-laguntzei esker bizi gara, besterik ez: hiru milioi bazkide inguru dugu munduan, 95.000 Espainiako estatuan. Eta ekintza zuzena erabiltzen dugu ingurugiroaren arazoan gainean arreta pizteko. Horra gure ezaugarri nagusiak.

—Erakunde handia da Greenpeace. Handiegia?

“Klima etengabe aldatzen da, baina sekula ez da hain azkar aldatu”

—Handia izateak alde onak eta txarrak ditu. Batzuetan, esaterako, urrunegi gaude tokian tokiko arazoetatik. Baina bestetik, gure ahotsa entzun egiten da, eragiteko gaitasun handiagoa dugu. 35 urte hautean, Greenpeacek garaipen garrantzitsuak lortu ditu Lurraren defentsan.

—Hala ere, ingurumen arazoez, jarraitu

ez eze, gora egiten dute...

—Bai, baina horrek ez digu lortutakoaz konturatzea galarazi behar. Bide horretatik lortu baitezakegu arazook konpontzea. Badago batere gustuko ez dudana gogoetabide bat: “Arazoak hain larriak izanik, ezin da ezer egin haiek konpontzeko”. Arrazoibide horrek etsipenera eta geldia egotera darama jendea. Nire ustez, ez da ukatu behar arazo larriak ditugula,

baina batez ere lor dezakegunari eman behar diogu arreta.

—Baina ez gagoz gobernu, enpresa edota norbanakoen ekintza hutsez berbetan. Arazo nagusia gure gizarte eredia bera da, eta hori aldatzea oso gatxa da...

—Arazoa oso argi dago: gure ekonomia sistemaren ardatza etengabeko hazkun-



dea da, baina oinarri fisikoa mugatua da. Ekuazioa ezinezkoa da, beraz. Liberal batzuek ergelkeriatzat jotzen dute esan dudana, baina oso agerikoa da oinarri mugatu batekin ezin daitekeela hazkunde mugagabea eduki. Ekuazioa aldatu ezean, amildegira joango gara zuzen-zuzen.

—**Zelan aldatu ekuazioa ordea? Nahikoa dira gudu jakinetan lortutako behin-behineko garaipen txikiak?**

—Behin-behineko garaipenak garrantzitsuak dira, halako asko lortuta baino ezin izango da-eta eredu hau aldatu. Nola aldatu? Uste dut asko dugula naturarengandik ikasteko. Geure pentsamoldea aldatu behar dugu, eta aldaketa hori ematen ari da, gutxika-gutxika. Alegia, gizakiok gero eta gutxiago begiratzen diogu geure inguruari suntsitu beharreko inguru erasokorra izango bailitzan -hala izan da Neanderthal en gizakien garaitik-; eta gero eta hobeto ulertzen dugu gure inguruarekin harremanean bizi behar dugula. Pentsatzeko era aldatu behar da, hortaz. Garapenaz dugun ikusmoldea aldatu egin behar da. Badira neurtu ezin diren ondasun asko, eta horiek ere garapena dira. Garapena, azken batean, ongizatea da, bizi-kalitatea... eta ez ekonomia hazkunde hutsa.

—**Guretzat oso hurbil dagozan gai batzuez itaundu gura genizuke, baina ez dakigu zuri ete dagokizun erantzutea. Abiadura Handiko Trena, esaterako...**

—Hara, Greenpeacek ez du zenbait gairen inguruan jarduten. Bederatzi kanpaina-gai dauzkagu, eta horiek jorratzen ditugu: klima-aldaketa, energia nuklearra, basoak, itsaso suntsiketa, transgenikoak, toxikoak, ura, itsasertz suntsiketa eta armagabetzea. Horietan xahutzen ditugu geure baliabide guztiak. Arazo gehiago dago noski, eta horietako bat, zer esanik ez, garraioa da. Behin hori argituta, zera deritzot aipatu duzun gaiari: abiadura handiak eragin handiegia dauka kontsumoari dagokionez. Bai energia-kontsumoa, bai lurralde-kontsumoa... Uste dut garraio-eredu desberdin baten alde egin behar dela apustu.

—**Energia nuklearra aipatu duzu. Euskal Herrian badakigu zeozer haren kontrako borrokaz. Gaur egun, ordea, hortxe daukagu Garoña, eta emoten du ia inor ez dela konturatzen...**

—Orain, gainera, oso momentu garrantzitsua da Garoñari dagokionez. Garoña itxi egin behar da, baina ustiatzen duen enpresak beste hamar urtez berritu nahi du lanean aritzeko baimena. Eta 2007an

“Gure bizimoduari euts diezaiokegu lau aldiz gutxiago kontsumituta ere”

erabakiko da zer egin. Guk argi daukagu Garoña itxi behar dutela, oso zentral zahar eta arriskutsua delako; gainera oso energia gutxi ekoizten du. Eta bai, bertatik bertara dago mehatxua, Euskal Herriaren ondo-ondoan. Ez diogu arreta gehiegirik ematen energia nuklearrari eta haren arriskuei. Baina berriz zabaldu nahi dugu eztabaida, eta guretzat argi dago gizakion etorkizunean ez lukeela energia mota horretarako lekurik egon behar. Orain eztabaida dago, ea zer egin beharko dugun erregai fosilak agortutakoan. Bestela esanda, zer egin petrolioaren osteko aroan. Gure iritziz, aro hau energia berriztagarrien aroa da. Beste batzuek uste dute etorkizuna nuklearra dela.

“Garapena ez da ekonomia hazkunde hutsa; ongizatea ere garapena da”

—**Dagoeneko aipatu dituzu liberalak behin. Haiek zabaldu gura duten ideia nagusietako bat da klima-aldaketa ez dugula gizakiok eragiten...**

—Urte askoan esan zuten aldaketarik ere ez zegoela. Orain, aldaketa hain agerikoa izanik, zera diote: “Hara, aldaketa egon badago baina ez dauka zerikusirik gizakion ekintzarekin”. Klima etengabe aldatzen da, bai, baina sekula ez hain azkar. Niri, edonola ere, denbora galtzea irudi-

tzen zait eztabaida horretan sartzea, zer-bait egin behar dugulako lehenbailehen. Bestalde, honezkero ondo jakina da nor ari den talde hauei diruz laguntzen: petrolio-enpresa handiak. Uste dut liberalak oker dabiltzala, eta sektore politiko asko ari dira erakartzen inola ere onargarriak ez diren pentsamoldeetara. Hala esan diet beraiei ere. Benetan uste baitut liberalak amildegirantz garamatzatela guztiok.

—**Zer iritzi dauka kaletar arruntak mugimendu ekologistaren gainean?**

—Orain dela gutxi BBVA Fundazioak zabaldutako ikerketa baten arabera, nahiko ona. Hala ere, gatazka askotxo eduki dugu herriko hainbat sektoreekin. Arrantzaleekin, fabriketako langileekin... Beraien bizimodurako mehatxutzat gauzkatekin. Baina ez dut uste horrek gehienen iritziarekin bat egin duenik. Jendeak goko gaituelakoan nago.

—**“Zein jatorrak Greenpeacekoak, baina egin dezatela eurek”...**

—Hala da. Zerak ematen dit amorru: hondamendi bat dagoen bakoitzean jendeak galdetu egiten du: “non dago Greenpeace?”. Nik diot: “Eta non zaude zu?”.

Greenpeacek ahal duen guztia egiten du. Bazkideen laguntzari esker bizi den hiritar erakundea gara, eta mugak ditugu. 95.000 bazkide ditugu, batez besteko 50 euroko ekarpenaz. Horrek 5 milioi euroko aurrekontua ematen du, eta hori oso gutxi da, besterik dirudien arren. Diru-kopuru hori ez da nahikoa zentral termiko baten zimentuak jartzeko, edo ontzi bat eraikitzeko. Guk baino askoz indar handiagoa daukaten botereen aurka ari gara borro-

katzen, eta ahal dugun guztia egiten dugu dauzkagun baliabideekin. Askotan, etxe aurreko zuhaitza mozten diotenean gogorutzen da jendea gutaz: “Zergatik ez datoz Greenpeacekoak zuhaitzera katez lotzera?”. Hori ez da Greenpeacen betekizuna, norberarena baizik.

—**Hiritarrok ez ei gara oraindik guztiz konturatzen gure eguneroko jardunak energia-kontsumoan daukan garrantziaz...**

—Lehen energia berriztagarriak aipatu ditut irtenbidetzat. Baina ez dago irtenbiderik kontsumoari mugarik jarri ezean. Eta energia-kontsumoa urtez urte hazten da. Eraginkortasun eta energia-aurrezte politikak lehentasunezkoak dira, eta hala ez bada okerreko mezua ari gara zabal-tzen, baita guk geuk ere: “Energia berriztagarriekin bizi gaitetzke” esaten badugu,

jendeak pentsatuko du oraingo bizimoduari eutsi ahal izango diogula energia berriztagarriez, eta ez da hala.

—**Geure bizimodua guztiz aldatu beharko dugu orduan...**

—Ez hainbeste. *Factor Four* izeneko liburu interesgarri batek dioenez, gurea bezalako herrialde garatu batek bere bizimoduari euts diezaioke lau aldiz baliabide gutxiago kontsumituz, teknologia eraginkorrak erabiltzen baditu. Horrek ez du esan nahi teknologiak denok salbatuko gaituenik. Nik behintzat ez daukat harenganako fede itzela. Baina lagundu egin diezaguke, eta asko gainera.

—**Geure bizimoduari eutsi diezaiokegu lau bider gitxiago kontsumituta ere. Baina era horretan aukera edukiko lukete Hirugarren Munduan gehiago kontsu-**

mitzen hasteko? Oklahomako biztanle batek Burkina Fasoko batek baino askoz energia gehiago erabiltzen du, erabiltzen duenez...

—Adibide ona da hori. Izan ere, AEBetako biztanle batek Europako biztanle bik adina petrolio kontsumitzen du batez beste. Autoak hemen eraginkorragoak direlako, hiri askotan jendea txirrindulaz dabilelako, garraiobide publiko gehiago dagoelako... Horrek ez du esan nahi Europa panazea denik, baina adibide ona da gutxiago kontsumituz bizi-kalitate bera eduki daitekeela ikusteko; ez baitut uste AEBetan baino bizi-kalitate eskasagoa dugunik Europan. Eredu horretarantz jo behar dugu, eta ez estatubatuar eredurantz. Energia gutxiago kontsumitu ezean, ez da irtenbiderik egongo. ^m



Egonaldiak euskaraz zure lagunekin!

1994 eta 1999 bitartean jaiotako ume euskaldunentzat

NOIZ	NORA	PREZIOA	MATRIKULA
Urriaren 11tik 15era <i>Del 11 al 15 de octubre</i>	Pasai Donibane	64 €	Urriaren 2tik 5era <i>Del 2 al 5 de octubre</i>
Abenduaren 5etik 10era <i>Del 5 al 10 de diciembre</i>	Beizama	80 €	Azaroaren 27tik 30era <i>Del 27al 30 de noviembre</i>



Informazioa

EUSKARA ZERBITZUA
Jose Ramon Aketxe plaza 11 (Kultur Leioa)
Tel: 94 607 25 76





MAROKOKO BASIDOU TALDEKO PANDERO JOTZAILA

Munduko soinuak

Iraileko hitzordu saihestezin bihurtu zen aspaldi Getxo Folk eta munduko bestelako kulturak, bazterrak eta pertsonak ezagutzeko aukera paregabea eskaini digu aurten ere. Musikalki arrakasta ikaragarri eduki du jaialdiak eta ikusle aldetik beste horrenbeste, izan ere 55.000 lagun hurbildu ziren Areeta eta Erromo ingurura, eskaini ziren kontzertuak gozatzerako. Salif Keita, Kepa Junkera, Hedningarna, Enzo Avitabile eta beste makina bat taldek Getxo munduko soinuen hiriburu bihurtu zuten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



KATALUNIAKO TACTEQUETE TALDEA (GOIAN ETA BEHEAN)





KANARIAR UHARTEETAKO JOSE ANTONIO RAMOS TINPLISTA



ENZO AVITABILE ARTISTA ITALIARRAK (BEHEKO ARGAZKIAN) ETA BERE TALDEAK ERAKUSTALDI EDERRA EGIN ZUTEN



HEDNINGARNA TALDE SUEDIARREKO LAGUNA





KEPA JUNKERAK, APPAKASTA HANDIZ, HIRI IZENeko BERE AZKEN LANA AURKEZTU ZUEN GETXON





SALIF KEITA AFRIKAR ALBINOAREN AHOTS ZORAGARRIAK 6.000 LAGUN BILDU ZITUEN



Nömadak Tx, ttakunaren bidaia

India, Sahara, Laponia eta Mongolian barna,

txalaparta gidari, kulturarteko elkartrukearen filma

Donostiako Nazioarteko Zinemaldian estreinatuko da *Nömadak Tx* filma eta urriaren 11n helduko da hego Euskal Herriko hiriburu, Madril edota Bartzelonako areto komertzialaketa Barton Films banatzailearen eskutik. *Nömadak Tx* sormenezko dokumentalaren eta *road movie*-aren arteko film luze legez aurkeztu

**«DVD, dokumental saila,
disco berria, bidaia kaiera, etab.
argitaratuko dituzte»**

dute egileek: Raul de la Fuente zuzendariak, Arena Comunicacion ekoiztetzeko Pablo Iraburuk eta filmeko bi protagonistek: Oreka Tx taldeko Harkaitz Martinez de San Vicente eta Igor Otxoa txalapartariak. Izan ere, bi musikarien desio bat dago proiektu osoaren oinarrian, *“txalaparta topa(g)une eta elkarriketa(g)une bihurtzea; batetik, pertsona ezber-*



Indiarrak txalaparta jotzen ikasten

*dinen artean eta, bestetik, kulturen artean...
helburuak 2 ardatzetan oinarritzen dira: txal-
laparta eta kulturartekotasuna”.*

Ezin jakin haizeak noraino daroazen soi-

nuak, baina Igorrek eta Harkaitzek txalaparta lepoan hartu eta ttakun, kun, tukutun, takatakak India, Laponia, Mongolia eta Saharako lurraldeetan barrena aineratu dituzte. Filma zelanbait ibilbide horretan zehar bizitako elkartrukearen zati da, eta sinopsian azaltzen duten moduan: *“Mugimenduan dauden bi musikariren istorioa; soinuaren bila bidaiatzen dute, eta aurkitu egiten dute beste herri, paisaia eta kulturetan. Pertsonen baitan. Eta hauek ere musika erabiltzen dute munduari esateko: hemen gaude, bizirik gaude, geu gara”*.

Ostera, *Nömadak Tx* film bat baino gehiago da, proiektu bat da; DVD bat argitaratuko dutelako (filma, *making off*a, emanaldiak...), dokumental sail bat (herrialde bakoitzeko lan bana), disko berria (abendurako), bidaia kaiera, karpa nomadak antolatu, etab. ^m

Informazio gehiago: www.nomadaktx.com

Baga-Biga musika ideiak

Mungiako disketxeak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu eta dagoeneko **3 disko kaleratu** ditu



Argazkian, Iker Aginaga. Informazio gehiago: www.baga-biga.com; harremanetarako: 618 072 026

Udaberrian jaio zen Uribe Kostako mugetatik hurbil, Mungia aldean, Baga-Biga disketxea, Agus Barandiaran eta Iker Aginagaren ekimenez, eta Asierren laguntzagaz. Disketxeaz gainera beste hainbat dira eskaintzen dituzten zerbitzuak adb.: taldeen managementa; kontzertu edota ikuskizunen antolaketa eta koordinazioa (ekipolak, agertokiak...); estudioan edozein motatako grabazio musikalak; areto edo antzokien kudeaketa... Horietako asko lehenagotik eskaintzen zituzten produktora legez, disketxearena azken aurrerapausoa baino ez da izan. Metaken agurretik gutxira jaso genuen Baga-Bigaren jaiotzaren berri, euskal musikagintzan krisi berba hedatu

zen garaian, eta Aginagak azaldu duenez, “ez da erraza; onain sor daitezke disketea asko baina ez hain potenteak; beno, gure intentzioa ahalik eta potenteena izatea da, baina... Metaken filosofia ere nahiko arriskutsua zen, gehiago arriskutzen zuen musikagatik eta agian hor egon da gakoa... Gutx dago, talde asko, disko asko... eta denentzat, merkatua dagoena da; lan egin beharko inauteko!.” Dagoeneko 3 dira plazaratu dituzten diskoak: Noizean Behin, Korrontzi eta Basaki taldeenak. Musika estilo eta hizkuntzaren aldetik lehentasunik ezta mugaririk ere ez daukatela agertu dute eta udazkenerako beste 4 disko argitaratuko dituztela: Itaka, Linea 2, Kill Minister eta Bidebat taldeenak. ^m

diskoak

Taking the long way
Dixie Chicks
Columbia



Texasko taldearen zortzigarren lana country soinetatik urruntzen da oso, poearen murgiltzeko. Bide berri horretan, hainbat lagunen kolaborazioa eduki dute: Johnny Cash, Red Hot Chili Peppers eta Tom Petty ekoizpenean; Red Hot-eko Chad Smith; Heartbreakers Benmont Tench; Mike Campbell; Sheryl Crow; Gary Louris eta Crowded Houseko Neil Finn, besteak beste.

13 mantracks
Sök
Gör



Bere lehenengo diskoa den honetan 13 kanta sartu ditu SÖK taldeak. Izen berezia dauka diskoak. Ekialdean mantrak norbere barruko ahotsak dira eta, esan bezala, CDko kantuak edo track-ak 13 direnez, izen biak batu dituzte: Mantra eta Track. Musika zuzena eta gogorra sortu dute eta metala zein rocka dira nagusi.

Hiri
Kepa Junkera
Elkar



Irailaren 4an Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdi ospetsuan aurkeztu zuen trikitilariak *Hiri* bere azken diskoa. Lan berriak istorio kiilagarriak eta sentsazio bakanak biltzen ditu eta egileak bere mundu pertsonalaren berri ematen digu. Halaber, Kepa Junkerak sortutako kantu indartsuek hiri zaratatsu, koloretsu eta aldakorrera garamatzate, bertako bizitza modu ezin hobean erakutsiz.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza

urriak 9

Erromoko kultur etxea

urriak 19

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Nagib Mahfuz

Mila eta bat gauen gauak **euskaratuta** dago dagoeneko eta laster egongo da *Mirarien* kamika

Iraila urteko aro berri baten hasiera den heinean, liburuen txoko honetarako proposamen berrien bila abiatu gara apalategiko lagunen artera. Egiptotik datozen kanpai-hotsak harrapatu digu begirada, eta horregatik, arrazoirik edo zergatirik behar ez badu ere, Nagib Mahfuz (Kairo, 1911-2006) idazlearen obra ezagutzeko proposamena luzatu gura dugu.

Koranaren hizkuntzan idazten zuen eta literatura arabiar modernoaren aitatzat jotzen den Mahfuzek 1988an jaso zuen Literaturako Nobel saria, eta gaur arte arabieraz idazten duten idazleen artean saritutako bakarra izan da. Ipuinen bidetik ekin zion idazteari, gerora eleberrri histori-

«Los hijos de nuestro barrio liburuagatik jazarria izan da urtetan Kairoko idazlea»

koen ildoari jarraitu zion, ostean Egiptoko garaiko errealitatea islatu duten eta hain esanguratsuak izan diren lanak datoz (adb. *Mirarien* karrika, 1947 eta ezin aipatu barik utzi *Kairoko Trilogia*, 1956-57). 1959an kaleratu zuen lehenengoz *Los hijos de nuestro barrio* mundu mailan liburu arrakastatsua (1967) eta Egipton debekatu zutena *“Jainkoa eta profetak ordezkatzten*




Abuztuaren 30ean zendu zen Kairoko idazlea

zaituen pertsonaiak agertzen direlako, hori lege islamikoen kontra doalako eta blasfemikoa delako”. Buruzagi islamista batek heriotza zigorra ere ezarri zion liburu horregatik. Hala 1994an eraso larria jasan zuen Mahfuzek, erdi gor eta itsu utzi zuena; ordutik ia etxetik irten gabe eta zaintzapean bizi behar izan zuen.

Bestalde, Patxi Zubizarretak oraintsu euskaratu du Mahfuzen *Mila eta bat gauen gauak* (Txalaparta) eta aurten kaleratuko ei dute *Mirarien* karrika. Azken agur fisikoa abuztuaren 30ean eman zioten; euren obrak medio hilezkor diren horien artean bego! ^m

liburuak



Zazpi urkatuak
Leonid Nikolaievitch
Alberdania

Hiru istorio kontatzen dizkigu egileak, egoera ezberdinen aurrean gizakiaren jokaera zein den erakutsiz: *Zazpi urkatuak* (hiltzera kondenatutakoek azken egunetako istorioa); *Ilunpeak* (prostituta eta iraultzaile baten arteko solasaldia) eta *Espektrorak* (zoroetxe bateko gorabeherak).



Diamantezko miraria
Joxemari Urteaga
Elkar

XVIII. mende hasieran kokatutako nobela historikoa idatzi du egileak. Horretarako, aitarik gabe geratu den mutilaren istorioa hartu du oinarri. Abentura, misterioa, bidaia eta amodioa uztartzen du kontakizunak. Gainera, Kaiet Bengoetxearen marrazkiak ditu lagun.

[kirola]

Jon Elortegi > Castroko arraunlari barikarra

“Azkenengo urte hauetan, nik uste, gorakada sumatu dugu arraunean”



Azkenengo bi denboraldiotan Castroko traineruan egin du arraunean barrikarrak

Hamabi urtegaz hasi zen Jon Elortegi arraunean, osaba entrenatzailearen eskutik Plentziako Arkote taldean. Barrikarrak 13-14 urte eman zituen arkotetarren artean eta ostean Urdai-baiko trainerura salto egin zuen. Azken bi denboraldiak “gorriakaz” arraunean ibili da, *La Marineraren* barruan, Castro aldean.

Urdaibaikoen kulunka zergatik uztea erabaki zuen azaldu du 29 urte betetzear dagoen arraunlariak: “Urte horretan “anazoak”-edo egon ziren Urdai bain, entrenatzailea joan egin zen... eta gelditu zen kluba buro bisible baten beharrean... eta Castroko eskaintza eduki genuen Urdai baiko sei arraunlarik eta azkenean han batu ginen denak”. *La Marineran* zazpi euskal arraunlari dabiltzala jakinarazi digu Elortegik eta nahitaez euskal giroa egon badagoela: “Giroa nahiko euskalduna da, bai, benetan; Jose Luis Korta entrenatzailea izanda ba dena euskaraz egiten dugu, eta gure artean ere askotan; gus-tura gabiltza, ondo hartu gaitu hango jendeak”.

Dena dela, euskal eta Kantabriako olatuak elkarren kontra jotzen dabil-tza azken aldian, eta urak ez daude gura bezain bare. Horrez gainera, ez du ematen, afonturik egongo ez denik. Halere, ur handiegietan ito barik, baina arraun-

lariak bere ikuspuntua azaldu digu: “*Gu, azke-nean, ez gara asko sartzen; adibidez, pasa dan egu-nean Kontxan, gu itxaroten egon ginen, eurek en-baki artean gu uretara bagoaz ala ez, eta aurrera esaten dutenean ba gu uretara... baina, bai, urak nahastuta daude*”, eta horrek zelan edo halan arraunlarien jardunean ere eragiten duela zalan-tzarik ez dago, “*eragiten digu batez ere ikusten du-gunean ez dutela gugan pentsatzen; lehen-go egu-ne*

«Gu ez gara asko sartzen baina horrelakoek eragiten digute, ikusten dugunean ez dutela arraunlariongan pentsatzen»

an egon ginen 3 ordu itxaroten, 8:30ean hasi genuen estropada, hainbeste ordu jan barik... itxa-roten, zer egingo dugun jakin barik, eta gainera urteko estropadarik garrantzitsuenean!”.

Osterantzean, Bizkaiko arraunari begira hala dakusa Elortegik egoera: “*Traineruetan Arkote eta Urdai bai nahiko ondo dabil-tza, Urdai bai gorabehera gehiagogaz, baina... ondo; eta harrobia zelan doan ez dut asko jarraitu, baina Lekeitio eta Ondarroa aldetik harrobi handiagoa dago... nik uste, azkenengo urteotan, gainera, gonakada bat sumatu da arraunean*”.

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris.s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZU-NA
- 3 HILABETKO GARAN-TIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITU-

& 94 430 52 00 **Kasune, 18 • ALGORTA**

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430

HIRURAK

Sarrikobaso 15

Jorge Jauregi > dantzaria

“Europar oso errotuta dago arte-eszenak ikustera joatea, hemen Athletic bezala”



Argazkian, Jon Jauregi

Jorge Jauregi 31 urteko plentziarra da. Anaia Germanegaz batera, Bruselako *Ultima Vez* taldean dihardu, abangoardiako dantza garaikidea egiten hain zuzen. Hiru urte inguru daroaz Jauregik Belgikan, eta gehitxoago Euskal Herritik kanpo. Beste asko bezala, atzerrira jo behar izan zuen dantza ogibide bihurtu ahal izateko. Egun batzuk igarotzera Euskal Herrira bueltatu dela-eta, beragaz elkartu gara.

—Noiz hasi zinen dantza egiten?
—Unibertsitatean nengoela. Kazetaritza ika-si nuen, Leioan, eta gero Historia Gasteizen -Historian lizentziatua naiz-, eta ikasketak oso aspergarriak zirenez dantzatzen hasi nintzen.
—Orduan nahiko “zaharra” zinela hasi zinen! Ez da oso ohikoa, ezta?
—Hara, uste dut badagoela adin horregaz edo are beranduago hasten den jende askotxo.
—Baina profesionalak izatera ailegatzen dira, zu bezala?

—Hori gauza askoren menpe dago. Zortea, zuk daukazun gogoa... Baina ez dut uste beharrezkoa denik adin jakin batean hastea.
—Hala ere, dantza klasikoan jarduteko oso txikitan hasi behar ei da, bestela gorputzak malgutasuna galtzen du...
—Nik, egia esan, ez dakit askorik balletaz. Baina pentsatzen dut zuk diozun bezala izango dela. Balletak ez ninduen erakartzen umea nintzela; geroago lanen bat edo beste ikustera joan nintzen eta estetika aldetik ederra izan daiteke, baina berehala ulertu nuen

nik ezin izango nuela sekula halakorik egin. Niretzat, dantzari bihurtzeko gakoa *La Fundación* bezalako aretoak egotea izan zen. Han erakusten diren lanakaz banentorren bat. Eta pentsatu nuen: hauxe gustuko dut, eta gainera egiteko gai izango nintzateke.
—Egongo da zera dioen maltzurrik: “Hauek dantza mota hau aukeratu dute, ezin dutelako bestea egin”.
—Egon liteke klasikoan hasi eta oso trebea ez izategatik beste arlo batera joan denik, baina uste dut dantza mota bat aukeratzen duenak gustuko duelako aukeratzen duela.

«Dantza arlo desberdinak daude, eta ez dute zertan elkarren kontra lehiatu»

—Esaten da dantza klasikoa ikasi izana ez dela oso gomendagarria gero dantza garaikidea egin gura duenarentzat...
—Halaxe uste dut nik. Izan ere, gorputzak organikotasuna galtzen du. Oso gaztetan hasten dira gorputza oso modu espezifikoan lantzen, eta naturaltasuna galtzen da bat-bateko mugimenduak egiteko. Dena dela, berba asko egiten da horretaz eta niri bost axola, egia esan. Norberak jakingo du zer egin. Arlo desberdinak egon behar dira eta ez dago zertan elkarren kontra lehiatu.

—Hamaika euskal dantzari zabiltzate atzerrian. Gauzak oso txarto al daude hemen?
—Gauzak txarto daude, baina badago zozer. Ni hemen dauden gauzei esker hasi nintzen, esaterako. Hala ere, argi dago Bruselan oso bestelako egoera dagoela. Erakunde publikoen laguntzak askoz handiagoak dira han hemen baino, eta zale kopurua ere bai; aretoak bete egiten dira. Europa osoan, oso errotuta dago eszena-arteak ikustera joatea. Hemen Athleticen partiduetara joatea bezala, gutxi gorabehera. m

Esakere > “Ze barri da munduan? Bakotxa bizi dala bere moduan”



Bakotxa bizi beran modun... Elestike txarra ixengo holan balitze! Gaur egun, bizi, bizi gara, batzuk nahiko ondo eta mundun beste asko arrastaka. Gose ta gexo barik bizi garanak badeku zeitik pozik egon ta zeitik yantzan bere ein, baia kontu da beti beste batzuk yoten dauden tanbolinen soinure eiten dogule yantze. Bakotxa bizi dala beran modun? Ala bizi ete gara danok morroi gitxi batzuk gure dauden modun?

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran "Atsotitzak" bilduman topako dozue.

Gureberbakere82

Testua: Xabi Bilbao

ZELAN ESAN

Preziok eta kantidadek

77garren eta 79garren Berbakeretan zenbakin edo numerun ingiruko kontu batzuk ikusi genduzen. Honetan bere numerukez esaten direzen beste gai batzuk ikusiko doguz: jeneron preziok eta kantidadek.

Preziok preguntateko

- Zénbet balio dau horrek aparátuk?
- Zénbet paga dozu autogeitik?
- Zénbet eskátuten daude auto konpónduteko?

- Zean (zegan) dau tómate?
- Zean dekozue índabe?
- Zean sáltzen daudez hórrek txapélak?
- Zean erosi dozuz hórrek pórruk?

*Zean/zegan hau gaur egun gitxi entzuten da.

Erantzunek

- Bérrehun euro balio dau.
- Ahunde hamar eskatu dauste niri.
- Deskóntuez larógetamar íngiru baiño ez.

- Tómate dau hiru euron/eurotan kílo.
- Pátate óstera euro bien.
- Índabe lau euron sáltzen daude.
- Ardau hau úrteten datsu euro bi litro.

- Metro erdi tele bost euron sáltzen daude.

Adibide batzuk

—Zélau itxúre dakarzun! Zénbet paga dozu hóri arrakade ezpánatan íminteko?
—Hau arrakadégeittik ezer berez, piercing ésatén dako, ta bi íñ ezkeron hirúgarrena paga barik íten dotsue.
—Ta non dekozuz béste biék ba?
—Hára bat, hámentxe tripen, zilen óndon.
—Aiko! Ta béste?
—A! Beste eztau bisten!

—Eztau txarto hau aldizkaritxu ba! Zean sáltzen dozue?
—Saldu? Ez, ezta sáltzen, harpídetze íñ eta etxera éroten dotsue. Baía éroizu hau ointxe gure bádozu.
—Májo! Eskerrik asko, ta zénbet da harpídetze?
—Norberan borondate, baia ez ahaztu zéozér émote, ze lau orri zorrízto baño eztire, baia estu gabiltzez atárateko.



Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Piku gozotuak

eztia eta intxaurrekin

O raintxe hasi berri da pikuen sasoia. Paseo bat emanda ia nongura topa daiteke udazkena iragartzen digun fruitu gozo hau. Pikua oso egokia da postreak zein mermeladak prestatzeko.

Hasteko almibarra egingo dugu. Horretarako ipini ura su bizian irakiten, gero azukrea eta brandya gehitu. Eduki hau guztia su eztian ordu laurden edo, salda apur bat loditu arte. Ondoren pikuak bota eta bost minutuz sutan eduki. Postre hau aurkezteko, ipini plateran pikuak eta alboan intxaurren mamiak. Gaietik ezti apur bat bota eta kitto. Bestetik, gogoratu piku gozotu hauek, ontzietan gordeta ondo mantentzen direla. ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

dozena bat piku • litro erdi ur • 250 gramo azukre • basobete brandy



itsaso arana / jolastokikoa

Tenpranillo

mahats dotorea

M ahatsa, ardaoa: banatu ezinezko bikotea. Zer nolako mahatsa halako ardaoa. Ikasturte berri honetan, eta UKren zenbaki bakoitzean, mahats mota garrantzitsuenen gainean azalpenak emango ditut alez ale.

Eta hasteko, inongo zalantza barik, hain gurea den *tempranilloa* aukeratu dut. Mahats noblea dela esaten eta leku askotan lantzen den arren, Errioxan inon baino hobeto hazten da. Lekuen arabera ere izen desberdinak hartzen ditu, esaterako, Ribera de Dueron *tinta fina*, Mantxan *cencibel...* Oso mahats fina da, aromatikoa eta kalitate handiko ardaoak ematen dituena. Zaporetsua, afrutatua eta errubi kolore ikusgarri duna. Baina bere ezaugarriarik azpimagarriena ondo zahartzeko daukan ahalmena da. Atseгина, dotorea da. Zinemarekin konparazioa egingo bagenu, *tempranilloa* Katharine Hepburn litzateke eta ez Marilyn Monroe. ^m



La Croissanterie

Labe usain goxoa Sopelako erdialdean



Alain Laiseka, Arantza Duran, Iratxe Monteverde eta Angelines Calvo

Iratxe Monteverde, Arantza Duran eta Alain Laiseka gazteak dira oso, baina ez zuten inolako zalantzarik izan euren negozioa abian jartzeko orduan. Hain zuzen ere, Iratxeren ideia izan zen *croissanterie* bat jartzea, amak ere bat ireki zuen-eta orain dela 20 urte. Jakina, azken horrentzat kenduta, pastelena mundu berria zen beste gazte bientzat; hori dela eta, Getxon antzeko negozioa duen Anamari Mentxakaren laguntza izan zuten dena prestatzeko.

Joan den uztailaren 11n inauguratu zuten lokala eta ordutik ez dute atsedenik izan. Eskerrak Angelines Blancok dendan laguntzen diela, bezeroen sartu-irtena etentakoa da-eta. “*Proiektu hau Bizkaiko Foru Aldundiari esker atera dugu aurrera; izan*

ere, guk ez genekien ezer enpresa bat kudeatzeari buruz eta, jasotako laguntzari esker, aholkularitza eta formakuntza daukagu”, azaldu digu Arantza Duranek.

Betiko produktuak eskaintzen dituzte: mota guztietako ogiak, croissantak, izozkiak, txokolata... Baina, gure inguruan nahiko berriak diren produktuak ere eskuragarri ditugu La Croissanterien: ogi berdea; “traingulo” beteak (pernila gaztagaz, bexamela espinakakaz eta lau gazta); produktu ekologikoak (jogurra, gazta...); zerealez egindako croissantak, pantxineta...

Lokala 8:00etatik 22:00etara dago irekita eta ogia telefonoz eska daiteke. ^m

CROISSANTERIE Landa, 4-6 - Sopela

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14

Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Jurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

CAFE
Usategi
ALGORTA
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G **gOZOLABEA**

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROLO PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO


BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
 T: 430 22 13 T: 460 02 88
 GETXO ALGORTA

**aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz
 94 491 13 37

[horoskopoa]

URA
t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
 Inor baino azkarragoa izan zara oporrak hartzerakoan. Jendea gainezka zeuden tokietatik eta gune turistiko “kutreetatik” ihes egin eta atsedenaldia orain egitea erabaki duzu. Eguraldia epela da oraindik eta hondartzak hutsik daude zuretzat. Ondo ibili!

OTSOA
t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
 Zorionak lan berriagatik! Ikasturte berria bizitza berria diote batzuek. Burututako lan gogorrak emaitzak ematen dituela ikustea pizgarria da zuretzat, ezta? Berehala ospatu beharko duzu! Lagunakaz, familiagaz, bikoteagaz... *Bardin da, danokaz!*

ADARRA
t




(Otsailak 19 martxoak 20)
 Garai txarrak dira hauek zuretzat. Buruari buelta gehiegi ematen dizkiozu eta zure jarrera bizitzaren aurrean ez da batere baikorra. Jendeak maite zaitu, lagun onak dituzu. Etorkizunean hobeto joango zaizula ziur nago.

AITZURRA
t




(Martxoak 21 apirilak 19)
 Beti berandu! Beti berandu! Eskatu erloju bat zure urtebetez egunerako, behingoz! Ez da horren faltagatik izango... Zenbat bider errepikatu dizute denboran heltzea oso garrantzitsua dela! Ematen du ez duzula inoiz ikasiko...

HOSTOA
t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
 “Lan lasterra, lan alferra”. Ulertzen duzu zer esan gura duen horrek? Kontuan hartzeko gomendioa da, txo! Pazientziatz hartu, okerreko bidetik joan gura ez baduzu behintzat. Gauzak ondo egin behar dira beti.

EGUZKIA
t




(Maiatzak 20 ekainak 18)
 Zure bizitzari zentzia hartzen diozu lehenbiziko aldiz. Laino grisek ostaretei utzi diete lekua. Eskerrak, bazen garaia! Egunerokotasuna ez da pentsatzen zenuen bezain gatxa eta indartsu sentitzen zara. Zorionekoa zu...

GARIA
t




(Ekainak 19 uztailak 18)
 Bikote bila zabilazala? Ez dakit ba gararik proposena ete den... Ez al zaude ondo bakarrik? Ez zaude ohituta norbaitegaz ibiltzen eta arazoak egon daitezke. Lasai jarraitu, ez duzu inolako burukominik behar-eta!

LASTOA
t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
 Zer da zuretzat arrakasta? Batzuentzat zoriotsu bizitzea, besteentzat erronka gogorrei aurre egitea. Hainbeste aukera egonda, zergatik ez duzu zuk zeurea bilatzen? Oso erreza da, egiten duzunagaz pozik egotea da gakoa.

IRATZEA
t



(Abuztuak 18 irailak 16)
 Oporretan joateko txoko magikoak eta zoragarriak daude Euskal Herrian. Anima zaitetz eta ezagutu zeure etxea. Ziur nago Benidorrekoak baino ahaztezinagoak direla hemengo paraje koloretsuak. Ezagut zaitetz!

META
t




(Irailak 17 urriak 16)
 Uda aurretik makina bat egitasmo zenituen egiteko, baina udazkena dator laster eta ez duzula pentsatutako ezer egin konturatzen zara. Egunean egunkoia aprobetxatu beharra dago eta etorkizunari ez hainbeste begiratu.

HAZIA
t



(Urriak 17 azaroak 15)
 Isila, lotsatia eta bakartia zara. Zure kontura bizi gura duzu, inoren bizitzan sartzeko gogorik ez duzulako. Pozik zaude horrela? Ba tira, aurrera jarraitu, baina arazoren bat izanez gero, ez laguntzarik eskatu.

NEGUA
t



(Azaroak 16 abenduak 20)
 Jairik jai, edo hobeto esanda, gaurik gau ibili izan zara azkeneko hiru hilabeteetan. Zure gorputza esfortzuaren ajak nabaritzen hasi da dagoeneko. Horrela jarraituz gero oste kronikoa jasan beharko duzu. Atsedena hartu!



mungia
oKINdegia

Algortan badaukagu
 artisauen ogia
 izen eta jatorriz
 da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
 obispoen guleria
 probatu bada edo ez
 dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
 ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Agintariak agintean egiten duen aldia. 2. Penagarri. 3. Senide arra. Sodioaren ikurra. Lehen bokala. 4. Lore baratzea, lilitegia. 5. Maindirea, mihisea. ... edo Anjel Lertxundi, euskal idazlea. 6. Mu-sika nota. Armiarma sare. 7. Zezen zikiratu. Erbioaren ikurra. Moila. 8. Aitaitxiak, aitaitak. Neodimioaren ikurra. 9. Herdoil. Sigla autono-mikoak. 10. Bustialdi. Errotariak eho lanagatik hartzen duen saria.

Goitik behera

1. Osotasun baten zatien azterke-ta. Boroaren ikurra. 2. Giza talde jakin baten suntsitze sistemati-koa. 3. Donostiako auzoa. Zarra-tu. 4. Errioxako hiria, Nafarroako erregeen egoitza. Zango atal. 5. Trataera. 6. Zilarrenen ikurra. Bo-kala. Birao. 7. Lanbro euri. Pota-sioaren ikurra. Berrogeita hamar. 8. Drainatze hodiak. Bizkaiko he-rria. 9. Irdioaren ikurra. Muga zer-gak. 10. Gipuzkoako herria. Ipar Euskal Herrian, inudea, hazama.

Soluzioak

V	K	V	L		N	I	V	B
E	V	E		O	D	I	X	O
D	N		K	V	N	O	I	V
I	V	K		R	E		I	D
N	V	R	V	M	V		I	S
U	D	N	V		V	R	V	Z
V	I	G	E	T	V	O	L	
V	V	N	V	I	V	N	V	
I	H	V	G	H	V	G	E	N
V	I	D	L	V	T	N	I	G



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Gasteizen jaioa
- Kazetaria
- Gaur egun berriak aurkezten ditu telebistan

> Aurrekoaren erantzuna: Elena Irureta

> Irabazlea: **Julen Errasti ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

•Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



KEPA AMEZAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Etorkizuna taldea, 1976

1976. urtean sortu zuten Algortan Etorkizuna taldea, Itxasgane dantza taldea eta herriko skoutak batu zirenean.

16tik 25era urte bitarteko 190 bat gaztek osatu zuten orduan taldea eta, mendi irteerak egiteaz gain, jaiak eta bestelako ekintzak antolatzen zituzten.

Gaur egun bestelakoa da taldearen eginkizuna. 70. hamarkadako gaztetxoek sei begiraleren zaintzapean dauden haurrei eman diete paso. Basagoiti kalean daukate egoitza eta zapaturo elkartzen dira, jokoak, tailerrak zein mendi irteerak egiteko. Aste Santuan eta Gabonetan, berriz, bost egun igarotzen dute aterpetxe batean eta udan akanpalekuak antolatzen dituzte. Aurtengo irailean, gainera, badaukate zer ospatu, Etorkizunak 30 urte bete ditu-eta. ^m

Zutunik: Kepa Urkiza, Jokin Zubizarreta, Kepa Amezaga, Xabier Morages, Felix Rodríguez, Gerediaga, Mikel Maguregi, Casamijana, Sabino Palacios, Basterretxea, Iñaki Gaztelurrutia, Ramon Albeniz, Txiri Antia, Santi Gezuraga, Antton Azkargorta, Txema Bretos, Javi, Pedro de los Heros.

Makurtuta: Josu Laka, Gotzon Lores, Migel Bengoetxea, Mikel Laka, Julio San Jose, Josu Amezaga, Zamakona, Erramon Aurre, Rogero, Txabi Azkargorta, Julen Bengoetxea, Jesus Mayor, (?), Gabi Saitua, Mota, Roman.

ADELA GONZALEZ > kazetaria

“Izugari gogoko ditut Gernikako piperrak”

Testua: **Oiane Moran**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Oso zaila.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Memorias de Africa, Robert Reford eta filma bera oso gogoko ditut-eta.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Hatshepsut, Egipton izan den emakumezko faraoi bakarra. Cleopatra faraoi baten emaztea izan zen bitartean, Hatshepsut bera izan zen herrialdeko burua.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Asko! Ohetik altxatzea, esate baterako, asko kostatzen zait.

Aitor dezakezun bizio bat.

Gernikako piperrak!

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Egiptora bihar bertan bueltatuko nintzateke. Euren kultura kristona da.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Medikua edo osasunarekin zerikusirik duen zerbait izatea gustatuko litzaidake, baina zail ikusten dut.

Zein da zure ametsetako bat?

Loteria tokatzea eta munduan zehar bidaiatzea.

Euskal Herriko zure leku kuttuna?

Urdaibaiko Biosfera Erreserba.

Goiza ala gaua?

Goiza, baina gauetz irteten banaiz, agian ez naiz itzuliko.

Zein da ikusi duzun azken filma?

En la cama. Bitxia iruditu zait.


Eta irakurri duzun azken liburua ?

Orain modan dagoen Paul Austerren *Brooklyn Follies*. m

LABURREAN— Txoritxu batek esan digu Adela Gustavo igel kazetaria bezalakoa izan gura zuela txikitan. Hortaz, nagusi egin zenean, bere jaioterria den Leitزارan utzi eta Iruñeara joan zen kazetaritza egitera. Ikasketak amaituta, Ciudad Realeko egunkari batean hasi zen lanean eta, ondoren, EFE agentzian. Telebistan, berriz, *Gipuzkoa Directo* eta *Fiestas y famosos* saioetan hasi zen. ETB2ko *¡LQF Mójate!* saioan estreinatu zen aurkezle moduan eta, *Vaya familia*-n zein *Euskadi Directo*-n jardun ondoren, *¡Pásalo!* saioa aurkezten du gaur egun. Etorkizunean, aldiz, erre-portajeez edo elkarriketez osatutako saioa gidatzea gustatuko litzaioke.



URIBE KOSTAN ERE EGIZU EUSKARAZ



Hauexek dituzue aurtengo abendura arte antolatu ditugun ekintzak:

- **Euskaraz olgetan** / irail-urrian
- **Gurasoentzako ikastaroak:** euskara-eskolak, euskal jolasak, ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa / matrikula: irailean
- **Murgiltze-astea** (DBHko ikastetxeetarako) / irailean
- **Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina:** “irakurtzeko aholkuak” liburuxka (txikien gurasoentzat) eta GAZTETXULO aldizkaria (gazteentzat) / irail-urrian
- **Ipuin-lehiaketa** / urri-azaroan
- **JAKINGURA zerbitzua** (hizkuntza-zalantzak argitzeko zerbitzua) urri-abenduan
- **Sareko euskarazko produktuen katalogoa** / irail-urrian
- **Uribe Kostako euskalkia jasotzeko ikerlana** (Getxoko Udalarekin batera) irail-abenduan
- **Zenbait diru-laguntza** (herriz herri) / irail-abenduan
- **Ikastetxeetarako emanaldiak** / urritik abendura
- **Euskarazko produktuen katalogoaren kanpaina** / azaro-abenduan
- **Euskararen eguna, herriz herri:** ikuskizunak, kantaldiak, antzerkia, jolas-parkeak... / abenduan
- **Ludoteka ibiltaria** / abendu-urtarrilean
- **Olentzeroren inguruko ekintzak:** gutunak, tailerrak, antzerkia, liburuxkak... / abenduan.

Eta beste hainbat...

Eta hori guztia euskaraz. Horregatik,

URIBE KOSTAN, KOSTA ALA KOSTA, EUSKARAZ

